

## Jon Loiolak irabazi dau Bizkaiko Lasto Altxatze Txapelketea

11. orrialdea

## Atutxak Urrezko Aizkora irabazi dau

Aitzol Atutxak banakako Urrezko Aizkorako txapela lortu dau bigarren. Finala Azpeitian jokatu zan bagilaren 4an. Dimoztarrak 19 segundo atera eutsazan Iker Vicente bigarrenari eta Atutxak igaz lehenengoz irabazitako txapelari eustea lortu eban. Mugertza II.ak hirugarren egin eban eta Jon Rekondok zarratu eban sailkapena. 10. orrialdea



## Lur Ziarrusta dimoztarrak Trinketeko Euskal Ligea irabazi dau

11. orrialdea

TOKIKOM

# begitu

arratia ubide zeberio

# 276

2017ko bagilaren 15a  
hamabostekaria  
www.begitu.org

## Bedia, Ubide, Arantzazu eta Dimako jaiak

Udako solstizioa Arratia osoan ospatuko bada be, sanjuanak herriko jaiak dira Bedian eta Ubiden, eta sanpedroak Arantzazun eta Diman.

**M**usikeak animauko dauz batez be bariku eta zapatuetako gabak: Akabu, Hesian eta Oxabi egongo dira Bedian bagilaren 24an; Uckaia eta Gozategi Arantzazun 30ean. Diman, Akabu, EH2000, Belatz, Etsaiak eta Gora Herria taldeak garagarriaren 1ean joko dabe. Ubideko jaietan aitagarriena, urtero lez, herritarrak basora joan, arbola moztu eta herriko plazan altxatuko dabela da.

Herri guztietan antzerkia, lehiaketa gastronomikoak eta pelota partiduak egongo dira. Horrezaz gainera, Bedian, Bediako I. Slalom-a; Ubiden, zirko eskolako umeen emonaldia; Arantzazun buruhandiak eta Diman eskaladea egongo dira beste ekintza askoren artean.

San Juan bezperan, auzo edo herritik egurra batu ondoren, suak biztuko ditue Arantzazun, Areatzako Zubizarran, Arteako Santamariñen, Lemoako Tallerretan eta Zeanuriko Alzuagan, besteak beste. 5., 7. eta 13. orrialdeak



### LEMOA

## Beste miliziano baten hazurrak atera dabez Lemoatxen

Lemoatx inguruan egindako laugarren desobiraketea izan zan bagilaren 4koa. Bertan, Paco Etxeberriaren zuzendaritzapean Aranzadi Zientzia Elkarteko teknikariak, miliziano ezezagun baten hazurrak atera ebezan lurpetik. Baita garriko baten belarria, narruzko kartutxera eta munizinoa be. Milizianoa, 1937ko bagilean hilgo zan seguruenik, Lemoatxeko batailan edo inguru horretan 1937ko maiatzaren 29 eta bagilaren 5aren bitartean gertatu ziran burrukaldietan.

Guztira sei milizianoen gorpuzkiak berreskuratu ditue Lemoatxen eta, orain arte, bakarra idenfikau dabe. Indentifikau ostean, familia topau eta gorpuzkia familiari entregetan deutso Udalak. 6. orrialdea

### IGORRE

## Adinekoakaz adeitsuago izateko programea aurkeztuko dabe 21ean

Igorre, hirugarren adinekoakaz herri lagunkoiak egiteko prozesuan, diagnostikoa eginda daukan 5.000 biztanle baino gitxiagoko Bizkaiko lehenengo herria izan daiteke. Bagilaren 13an, Donostiako Kursaal-en egindako Euskadi Lagunkoia Sarea jardunaldian azaldu eban Igorrek orain arte egindako lana. Bagilaren 21ean, 18:00etan, Igorreko Pleno Aretuan, diagnostikoa aurkeztuko dabe jentaurrean. 8. orrialdea



Emozinoz Betetako Argazkiek

www.ibonebarrenetxea.com

Tlf 622517303

### DIMA

## Plazea oinezkoentzat izatea gura dabe dimoztarrak

Gaur egun batez be aparkalekua dala eta plazak bere izakerea berreskuratzea gura dabe dimoztarrak. Horren diseinua egiteko prozesu parte hartzailea ipini eban abian Udalak urtaila-zezeilan eta hortik ateratako ondorioak aurkeztu ebezan jentaurrean maiatzean. Partaideak plaza irisgarri eta segurua gura dabe, erabilera desbardinatarako moldagarria, eta autoen zirkulazioa norabide bakarrekoa. 9. orrialdea



ARRATIA AUTOESKOLA

karneta euskeraz zein erderaz

Agirre Lehendakaria 11, 48140 Igorre (Bizkaia)

Telefona 94 631 56 31 Faxe 94 673 70 83

E-posta: uzuluaga@gmail.com



**ARRATIA KOLOREETAN**

**ABIZARIE ELKARTEA**

Abizarie alkartea igaz sortu zan, Di-man, herritar talde baten kezka on-dorioz: herrian gero eta euskera giti-xago egiten zala ikusten eben. Dima herri euskalduna izan arren, eta oraindik euskerea bada be herri-ko hizkuntza nagusia, erderea gero eta sariago entzuten da bertan. Esparru batzuetan, ageri-agerikoa da aldaketa hori; esate baterako, umeak gero eta adin txikiagoan hasten dira erderaz berbetan, auzoetan, eskolan zein kalean. Baina hori, alkarteko kideen ustez, arazo zabalago baten erakusgarri baino ez da.

Azken azterlanen arabera, asko murriztu da euskerearen erabilera Diman. Hau da, lehen euskeraz egiten eben herritar asko erdaldun-du egin dira. Baina ez dira umeak bakarrik; helduak be erdaldun-du dira Diman. Umeengan ikusten dana

nagusien artean dagoan egoerearen espilua da. Egia da azken urteetan kanpoko jente asko etorri dala Di-mara biziten. Baina euretako asko eta asko euskaldunak dira; beraz, ezin esan hori danik erdalduntze-aren errazoi bakarra.

Abizarie alkartea, edozelan be, ez eban euki azterketa sakonen beharrik herrian egunero ikusten zan egoera horri aurre egin behar eutsala erabagiteko. Halan, ba, hiru ardatz nagusi lantzea erabagi eban igaz: sentsibilizazioa, erabilera eta hizkuntza-paisajea.

Hiru ardatzok abiapuntutat har-tuta, hainbat egitasmo gauzatu e-bazan alkartea. Esate baterako, hizkuntza-paisajearen arloan, herri-ko denda, taberna, jatetxe eta bestelako establezimientuetan idatziz dagozan kartelak, oharrak, menuak eta abar euskeraz jarteko ahalegina egiteko eskatu eutsen negoziotako ardura-dunai, eta, horregaz batera, UEMAK

eskeintzen dauan itzulpen-zerbitzu-aren barri emon, lagungarri modura.

Erabilereari jagokonez, "Barikue-tan be" ekitaldia antolatu eban, besteak beste. Bariku arrasti baten, kaleak, tabernak eta plaza girotu e-bazan alkartea musikaz, bertsoz, jantzaz eta abarrez, beti be euskera bultzatuteko mezuari lotuta. Ekimen horren bitartez, asteko momentu berezi bat erabili gura izan zan (ba-riku arrastia, asteko lan-nekeetatik atsedean hartzeako unea) herritarrai gogorarazteko lagunartea eta familia-giroa oso esparru garrantzitsuak di-rala euskerearentzat, eta hain zuzen be horrexegaitik dirala kontu handiz jagon beharrekoak hizkuntzari ja-gokonez.

Sentsibilizazioaren arloan, bi-deo bat egitea pentsau zan, beste hainbat herritan egin diranen ildotik. Hasikeran, idea bat baino gehiago landuten ibili ziran alkarteko kideak, baina, gero, aukera euki eben Ibon Izaren idea bat garatzen laguntzeko, eta halan sartu zan Abizarie alkartea, Ibonegatz eta beste hainbat lagune-

gaz, honezkero ia danok ikusi dogun *Elemakarrak* film laburra prestatzeko lanetan.

Herriko jaietan be, kartelak ipini e-bazan alkartea herri guztian zehar, jentea jaietan euskeraz egiten ani-metako.

Beste alde batetik, igaz hasi ziran egitasmoetako batzuek aurten ikusi dabe argia. Esate baterako, ointsu ar-gitaratu da BEGITU Jentiltxu eta Jen-tili unidade didaktikoaren barri. Ba, hor be Abizarie alkarteko kide batzuk ibili dira beharrea hasikeratik.

Irakurri, Gozatu eta Oparitu egi-tasmoa be antolatu dau alkartea Dimako Liburutegiagaz batera, irakurzaletasuna eta euskerea bul-tzatze asmoz.

Dana dala, aurtengo ekimenen barruan, *Eurt! Euskerara! Dimen euskera lehen, orain eta etorkizu-anean* erakusketea da aitagarriena.

Go-rago esan dan legez, erdal-ndu diran euskaldunak dira alkar-tearen kezka handienari-ko bat. Hiztunak galtzea da euskereari min handiena egiten deutan arazoeta-

riko bat, eta galera hori oindino na-bariagoa da Dima dan moduko herri txiki baten.

Idiai buelta egin dagian esaten ja-kien berbea da eurt. Eta, oi-hu horre-gaz, "Eurt!", euskerara itzularazo gura dauz Abizarie erderarako bidea hartu daben euskaldunak.

Herriko hainbat laguneri eskatu jakie pare bat galderari erantzuteko euskerea dala-eta: "Zer da zuretzat euskerea? Zer sentitzen dozu jen-tea euskeraz hitz egiten entzutean? Eta zer jatortzu burura orduan?". Euren erantzunak, erakusketea bat prestatu dau alkartea, eta herri-ko zenbait lekutan erakutsiko dau: bagilaren 9an eta 16an frontoi txi-kian, 18:00-20:00; bagilaren 28an, frontoi handiaren kanpokaldean, eta hilaren 29an, plazan (herriko jaien hasikeran).

Horregaz batera, kamisetak egin dauz Abizarie lema horregaz, "EURT! Euskerara", eta salgai daukaz daborduko. Erakusketea egiten dan egunetan erosi leitekez.

**Abizarie Elkarte (Dima)**

<b>TELEFONO INTERESGARRIAK</b>	<b>Larrialdiak</b> Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00 SOS DEIAK 112	<b>Dima:</b> 94 631 56 30 <b>Igorre:</b> 94 600 74 63 <b>Lemoa:</b> 94 631 31 16 <b>Ubide:</b> 945 45 03 61 <b>Zeanuri:</b> 94 673 91 49 <b>Zeberio:</b> 94 648 20 79	<b>Bizkaibus* 902 222 265</b> <b>Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo</b> Lanegunetan: Lehenengoa 05:00etan. Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era. Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan. Zapatuetan: Lehenengoa 05:00etan. Orduro: 05:45etik 21:45era. Jai egunetan: 07:45etik 21:45era orduro.	Jai egunetan: 08:45etik 20:45era bi ordurik behin.	Jai egunetan 08:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.	
	<b>Guardiako Farmaziak</b> <b>09:00etatik 22:00etara</b> <b>Bagilaren 12tik 18ra</b> Traver. Bedia. J.A. Agirrerren enparantza z/g Tel.: 94 631 39 50	<b>Udaletxeak</b> <b>Arantzazu:</b> 94 631 56 89 <b>Artea:</b> 94 673 92 05 <b>Areatza:</b> 94 673 90 10 <b>Bedia:</b> 94 631 42 00 <b>Dima:</b> 94 631 57 25 <b>Igorre:</b> 94 631 53 84 <b>Lemoa:</b> 94 631 30 05 <b>Ubide:</b> 945 45 03 22 <b>Zeanuri:</b> 94 673 91 46 <b>Zeberio:</b> 94 648 10 79	<b>Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri</b> Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro. Jai egunetan orduro 07:15etik 22:15era.	<b>Otxandiotik urteerak:</b> Lanegun eta zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro. Jai egunetan: 08:55etik 20:55era orduro.	<b>Arrigorriaga-Zeberio-Artea</b> Arrigorriagatik 12:40ean urtetan dan zerbitzua Artea-raino heltzean da lanegun eta zapatuetan. Jai egunetan ez dago zerbitzurik.	
	<b>22:00etatik 09:00etara</b> Iruarizaga. Amorebieta-Etxano. <b>Bagilaren 19tik 25era</b> Zamalloa. Areatza. Askatasun kalea 15 Tel.: 94 673 93 22	<b>Udalen Mankomunitatea</b> 94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15 <b>Gorbeialde</b> 94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01 <b>Parketxea</b> 94 673 92 79 <b>Igorreko Kultur Etxea</b> 94 673 62 51 <b>Gorbeialde Irratia</b> 94 631 52 90 <b>Euskotren</b> 902 543 210 <b>Areatzako Notariotza</b> 94 673 92 26	<b>Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo</b> Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik 22:30etara 30 minuturo, azkenengoa 22:15ean Galdakaoraino. Jai egunetan: 07:00etatik 22:00etara 30 minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean Galdakaoraino.	<b>Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide</b> Lanegun, zapatu eta jai egunetan, Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro. Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.	<b>Arrigorriaga-Zeberio</b> Lanegun eta zapatuetan, 07:40, 08:40, 10:40, 12:40, 14:40, 15:40, 17:40, 18:40, 19:40, 20:40. Jai egunetan, 10:20, 13:20, 16:20, 19:20.	
	<b>22:00etatik 09:00etara</b> Aranburu-Guarrotxena. Amorebieta-Etxano. <b>Bagilaren 26tik garagarriaren 2ra</b> Traver. Bedia. J.A. Agirrerren enparantza z/g Tel.: 94 631 39 50	<b>Medikuak</b> <b>Arantzazu:</b> 94 631 56 89 <b>Artea:</b> 94 673 92 11 <b>Areatza:</b> 94 631 71 52 <b>Bedia:</b> 94 631 34 13	<b>Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango</b> Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era 30 minuturo. Jai egunetan 07:00etatik 22:30era 30 minuturo.	<b>Zeanuri-Lemoa-Bilbo (Autopistatik)</b> Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik 21:15era orduro. Zapatu eta jai egunetan ez dago zerbitzurik.	<b>La Union* 94 427 11 11</b> <b>Bilbo-Gasteiz</b> Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan dau eta Otxandioakoak 16:00etan. Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta 16:30ean urtetan dau Bilbotik. Jai egunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan dau eta Otxandioakoak 18:30ean.	
	<b>22:00etatik 09:00etara</b> Guarrotxena. Amorebieta-Etxano. Zeberiokoak ez dau guardiarik egiten. <b>Urte osoan</b> <b>22:00etatik 09:00etara</b> Lucia Luño. Kareaga Goikoa 16. Basauri.		<b>Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo</b> Ubide-tik urteerak, lanegun eta zapatuetan: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.	<b>Artea-Zeberio-Arrigorriaga</b> Arteatik urteerak lanegun eta zapatuetan 06:55ean eta 13:55ean. Jai egunetan ez dago zerbitzurik ez.	<b>Gasteiz-Bilbo</b> Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta 16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta Otxandioakoak 10:30ean. Zapatuetan: Otxandioakoak 10:30ean urtetan dau Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean. Jai egunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan dau Gasteizetik. Otxandio-koak ez dago.	

**Argitaratzailea:** ZERTU Kultur Elkartea.  
**Helbidea:** Herriko Plaza 24, 48142 Artea.  
**Telefona:** 94 631 73 14.  
**Helbide elektronikoa:** [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com)  
**Webgunea:** [www.begitu.org](http://www.begitu.org)  
**Zuzendaria:** Iñigo Iruarizaga.  
**Erredakzio burua:** Beatriz Azpiri. Telefona: 94 631 73 14 eta 649 979 112.  
**Erredakzio taldea:** Jon Urutxurtu.  
**Maketazioa:** Beatriz Azpiri eta Iñigo Iruarizaga.  
**Publizitatea:** Iñigo Iruarizaga. Telefona: 94 631 73 14 eta 649 979 115.  
**Banaketa:** Marta Rodriguez, Pablo Rodriguez eta Rut Rodriguez (Lemoa eta Bedia), Ibai Milikua (Areatza), Iratxe Arribas (Zeanuri), Berbizkunde Arroita (Zeberio), Amaia Uriarte (Dima), Emma Aguilar, Iker Perez eta Ismael Martinez (Igorre) eta Irati Urien (Arantzazu, Artea eta Ubide).  
**Tirada:** 7.000 ale.  
**Inprimategia:** Iparragirre Editoriala.

Ale kopurua 7.000 / Lege gordailua SS-512/02 / ISSN zenbakia 1579-5519

**Babesleak:**



Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundutakoa




## ZEURE BERBEA

### Ebatzi dagigun

Areatzan zemendiaren 5ean herri konsultea antolatuko dauan alkartea sortu da: "Dagigun Areatza" erabakitzeko eskubidearen aldeko alkartea.

Martian ospatu zan asanblada zabal baten herri galdeketea aurten egiteko ebatzia hartu zan, eta erronka horrerri aurre egiteko lanean gabiz.

Alkartea 25 bilaroztarrek osotuten dogu. Eta hemendik eta zemendira arte hainbat ekimen martxan jarriko doguz.

Alde batetik, herri galdeketa antolatzeko finantziarioa lortzeko, barikuro Dagigun Elkarreak informazio mahaia jarri dau herriko plazan. Bertan alkartekoak egindako pintxoak euki doguz salgai eta Gure Esku Dagoko kamisetak be bai.

Udan zehar, jaietan, euskal jaietan... lan bardina egiten jarraituko dogu.

Bagilaren 2an "Prest Eguna" antolatu genduan, jentez osotutako galdera ikur erraldoia, erabakitzeko prest gagozala adierazoteko.

Bagilaren 9an hitzordu garrantzitsua izan dogu, konsultan egingo dan galdera adostuteko batzar zabala. 24 personek hartu dabe parte eta Dinamika parte hartzailea erabili dogu galderea adostuteko. Lan talde txikiak antolatu dira, dinamizatzaile bana taldeko. Gero proposamen desbardinak partekatu dira eta galdera bakarra adostu da: "Euskal estatu burujabe baten hirritarra izan gure dozu?".

Itaunak izan beharko leukezan osagaiak aztertu doguz, subjektua, objektua... Ahalik eta adostasun zabalena izatea gura dogula kontuan izanik, parte hartzea zabala bermatuko dauan galdera aukeratu da.

Amaitzeko esan, Dagigun Elkarreko kide izateko aukera beti dagoala zabalik. Alkartean lagundu gura badozu, idatzi gureeskudago.areatza@gmail.com helbidera.

DAGIGUN AREATZA ELKARTEA

### Zeure Berbea

Espazio hau irakurleentzako espazioa da. Irakurleak gura dauana adierazoteko lekua. Bialdu zuen kezak, eskerronak, hausnarketak, burutazioak edota ideiak karta baten bidez eta erabili BEGITU beste irakurleai zuen ikuspuntuak helarazoteko. Argitaratzeko derri gorrezkoa da izen osoa, NA-ren zenbakia eta herria emotea.

Zeure Berbea hamar herritan entzungo da. Zeuk daukazu berbea. Entzuteko prest gagoz.

Hauze dozu helbidea:  
Zertu Kultur Elkartea  
BEGITU aldizkaria  
Herriko Plaza 24  
48142 Artea

Edo, helbide elektronikoko honetara bialdu zure gutunak:  
begitu@topagunea.com

BEGITU ALDIZKARIA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITUK eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkartea. Herriko plaza, 24. 48.142 Artea edo begitu@topagunea.com helbidera.

## GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

### Idar



Itxura biribila, kolore berdea eta tamainu txikia daukan jangarria da idarra (iderra, agoskatuta). Batuan, ilar da. Arratia inguruan zabal erabili izan da gaztelania zaharreko "arbijilla" berbea be. Landare leguminoso honen hazia abenduan ereiten da, udabarran jateko moduan dagoalako. Hona hemen gure janari ezagun bi: patata egosiak eta idarrakaz egindako platerari "idar-patatak" esaten deutsagu; eta idar egosiari gainean pernila ipiniz egiten dan platerari "idarrak pernilagaz".

## ERETXIA

### Imajinario kolektiboa deskolonizau

Andrak ahaldundu, gizajentea ahaldundu: imajina egizu!"

izan zan orain dala urte pare bateko NBERen lemea. Lema honek gure imajinarioan mundua birsortzera konbidatzen ginduzan. Mundu bat non neska eta andra bakotxak bere ebatziak hartu leikezan: politikan parte hartu, ikasi edo bere bizitza proiektuak egin, esate baterako; mundu bat non neskek eta andrak indarkeria eta marjinazino barik bizi leitekezan. Badakizue, jentea izango bagina moduan.

Izan be, geure bizitzan gauzatu gura dogun edozein aldaketa, imajinatu egin behar dogu aurretik.

Andren eskubideen aldeko lorpenak asko diran arren, eskubideotan dagozan arrakalak be asko eta sakonak dira oindino. Gure kulturean, nire edadeko andrak, hezkuntza, enplegua, familia planifikazioa... izan doguz eta batzuetan badirudi dana lortu dogula, gizonen aukera bardinak izatea lortu dogula. Baina nire us-tez, arteztu bako kontu asko dagoz oindino.

Horreen artean, imajinario kolektiboa ahaldundutzea dago. Androk metaforearen lurraldeetan konbidauak legez egoteari itzea: umore eta poesiatik igarotzea, orio tanta bat uretan legez sentidu barik. Ez musa, ez ikusle, ezta narratziologietako objektu, sortzaile eta eskubidedun herritar moduan baino: berbea edo espazio publikoa hartzeagaitik geure burua zuritu barik, baimena edo parkamena eskatu barik.

Sarritan ez naz sentiduten entzuten edo ikusten dodanaren parte. Are gitxiago horretan identifikautu edo ordezkautu; eta andra moduan kanpoan ixten nuan diskurso edo sortukizun bateri jarraitzeko, esfortzua egin behar izaten dot. Berba egiteko modua ez dalako neutroa. Ezta umorea be. Ituan joteko munizinoz kargautu dagoz berbak. Horregaitik



VIRGINIA IMAZ

Klown-a

dauka hain garrantzia handia ez bakarrik esaten dogunak, baita esateko moduak be. Berbakerea garrantzitsua da. Mundua zelan ulertzen dogun adierazoten dau; zelango hartu-emonak egin geinkezan eta zelango jentarte eregiten dogun ebazten dau. Jente askok esakera batzuen atzean dagoan xenofobia igartzen dau, "maketo", "belarrimotz", "muturzikin", eta abarretan, eta horreen kontra burrukan egiteko prest dagozala dirudi; baina erresistentzia handiak erakusten dabez maskulino unibersala erabilteari ixtearen aurrean. Ekonomia lingustikoaren izenean erabilten dabela dinoe, edo gramatika zuzentasunagaitik, edo nagiagaitik... Ez da erreza. Norberaren berbakerea aldatutea, norberaren pentsakerea aldatutea da-eta. Eta oso erne egon behar da horretarako.

Hartu beharreko estrategiak porzesuari bueltea emotean datza: ze geure bizitzako arlo desbardinetan

berbeta barneratzailea erabiltean, isildutakoa, ikusiezina, baztertuakoa... izentatzen dogunean, entzulea konbidatzen dogu modu kritikoago eta solidarioago baten pentsatzera. Historian zehar talde baztertu asko egon dira eta dagoz. Androk, jente gehien "gitxiengorik" handiena izaten jarraituten dogu. Eta bazterte egoerak pilatu egiten dira, moltsotu. Andra batzuek denporea eta gorputza izaten dabe andra izateaz gainera, esate baterako, pobre, baltz, zahar, ezindu edo lesbianak izateko. Izanari izena emotea asko da. Asko-asko. Izentatzea, izana bera eta dan modukoa izateko eskubidea onartzea da. Beraz, berbakerea sano erreminta ona da gizarte-bazterketea prebeniduteko, garana eta izan gura doguna islatzen dualako.

Metaforearen (poesia eta umorea) erabilera (ber)trebatzea, androntzat berezko ahaldundute ekintza bat da. Fabrikazino akatsa izateaz gainera, gure herentzia sinbolikoa ez bakarrik batez be maskulino, patriarkala be izan da eta da, eta espazio publikoak guztiz gure kontrakoak izaten jarraituten dabe. Baina ezin gara ostenduta ibili. Munduan mobiduten gara garan gorputzagaz. Eta esaten edo egiten dogun guztia, gorputz horretan oinarrituta deskodifikauko dabe.

Herentzia kultural guztia susmagarritzat hartzean dauan begirada feministeak balio izan deusta kanpoko indar edo estereotipoak—gizonak eta andrak jokabide horretara egokitzea espero dau gizarteak—zelan indartzen dabezan patro arketipiko batzuk eta galazara beste batzuk ondo ulertzeko.

Imajinario kolektiboan ahaldundutzea preminazkoa da. NBEK be horixe dino. Imajinatu daigun. Imajinario barnertzaileak sortu eta sinistu behar doguz. Eta horreen barri emon. Andrak eta gizonak alkarrerri lagunduteko bardintasunezko mundu justuagoa eregiten. Eta hori egin behar dogu, egin ezin daben andrakaitik. Abotsik ez daukienakaitik. Gugaitik eta gure lagun guztiakaitik.

\*Erredakzinoan itzulia

**BATZ** 50 urte

BATZ, S. KOOP.  
Torrea Auzoa, 32  
48.140 IGORRE (BIZKAIA)

IZAN GINAN...  
...BAGARA ETA IZANGO GARA

Erredakzinoan itzulia

MONDRAGON



## LUMATUTEN

JOSE MARI  
KORTAZARErrogatiba  
bideak

**T**alibanak gerran Budaren gizaldietako irudiak zatitu eta txikitu ebezan. Irudi hareek apurtzea, budista izan ala ez, ondarearen aurkako atentadu bat legez hartu genduan. Irudien suntsipenak agertzen ebana ez zan erlijino kontua, kultura gaia baino.

Ondare materialaz gain, bada ondare ez materiala be. Jaso eta jagon: ipuinak, ohiturak, jantzak, bideak...

Errogatibak be gure ondarearen parte dira. Errogatibak kristautasunaren aurrekoak dira eta kristau herrietatik harago be badira. Erlijinoa eta kulturea, eta ondarea doguz.

Errogatibetan gizaldietako bideak doguz Arratiatik Urkiolara joateko: Dimatik, Igorretik, Zeanuritik...

Zeanuri eta Urkiola lotzean dituan ibilbidea, adibidez, orain dala urte bi seinalizau zan PR-BI 1 moduan; Joko Alaiko Alkarteko

boluntario talde batek seinalizau eban Zeanuriko Udalaren laguntze-agaz eta errogatiba eguna bide hori erakusteko eta ezetutera emoteko aprobetxetan da. PR-a Zeanuriko plazatik abiatzen da, Soloeta eta Makaztui auzuneetatik igaroz, Zumeltzako atsedenekura zuzentzeko, eta hemendik santutegira dagozan 5,5 kilometroak egiteko, GR 12 (Euskal Herriko bidezidorra) ibilbide luzea jarraitzen da. Martxea normalean, hiru ordu eta hamabost minutuan egin daiteken ibilbidea da.

Errogatiba bideak beste gauza on bat dauka: helburua ez da besteari irabaztea, lasterka egitea, lehena heltzea. Alkarregaz heltzea baino. Horrek dauka bere grazia: bidea alkarregaz eta alkarrerri lagunduz. Lasterketak egiteko badira beste aukerak. Hau beste gauza bat da.

Urkiolagaz batera Aralar izan da errogatiba nagusien beste helmuga gure herrian. Hango ohiturak dirala eta, EH Bilduko Patxi Zabaletak argi idatzi dau: "Laikotasunak edozein sinismen edo sensibilitadeko formazino eta informazino jarduerak eta eritoak, ospakizunak edo adierazpen kulturak eta sozialak errespetau behar dauz" (gogoeta osoa irakurri gura dauanak [www.arratia.tk](http://www.arratia.tk) blogean dauka eskura).

Desbardinaren arteko gizarte eta Arratia honetan, ez dakit nik, behar bada erratuta egongo naz, edadeko batzuk gazte batzuk baino askoz tolerantetagoak dira.

Bai. Ez da erlijino arazoa, kulturala baino. Ala ez?

## ZERTZEAN



ARITZ ZUBIATE

## Zuretzat, 20 urte beranduago

**E**z zintudan ezagutu, baina hari metafisiko baten lotu nau zuregana, batez ere, gau hartatik. Asanblada hura ez dut ahazteko. Pebeteroa euripean, aurpegi luzeak. Memoria edo, izango da. Niretzako garrantzitsua izan zinen, borrokaren sinbolo bat, "Gozakena agertu beajuk" eta "Eusko gudariak"-en letraren aurrean benetako konpromisoa erakustea. Harrezkero, pasatu dira udagoienak, gerra-egunak eta su-etenak, eta ez zaitugu ahaztu gura izan, zor moralak lotzen gintuen, oroimenaren hariak. Garrantzitsua zan katea ez etetea. Izan zinela jakin behar eben. Bertsino ofizialak guzurre esaten ebala. Egia atara behar zala argitara, ahazturaren iluntasunetik. Denpora aurrera joan ahala, gero eta gatxagoa ipini euskuen oroitzea, memoria

debekatu. Orduan be topatu genduzan zirrikituak, memoria debekatuak. Zure bizitzaz ikasi genduen, zure alaba ezagutu. Antzerkiak, kantak, jantzak, bertsoak, mitinak, poesiak, loreak, parrilladak, kartelak, pankartak, manifestazinoak, bideoak egin dira izan zinela esateko. Burrukan jarraitu. Eta 20 urte pasatu dira eta berba honeek zuretzat izatea erabaki dot, BEGITU, Arratia, Ubide eta Zeberioiko aldizkariarik mikro-ipuin bat eskatu dostielako (1600-1800 karaktere, ekainaren 10erako) eta paperezko atalaia hau baliatu gurako neuke aitortza txiki moduan. Kuriosidadea gitxienez piztu gurako neunkelako irakurleen artean, ondino, irailaren 23rako hilabete batzuk falta diren arren. Zuretzat Jose Migel. Zorra kitzeko, ahal dan neurrian behintzat.

\* Zertzean atalean argitaratuko doguzan testuak, literarioak edota sormenekoak diranez, heltzean diran moduan argitaratuko doguz eta ez doguz gure euskera eremuan ipiniko.

Tarte hau zeuretzako be dago zabalik, holango sormen-lanak BEGITUN argitaratu gura izan ezker, eskatu egiguzuz argitaratzeko baldintzak [beginu@topagunea.com](mailto:beginu@topagunea.com) helbidean.

## BEGI TXINDORRA

**A**reatzako Uxue Alberdik eta Aiala Zautuak irabazi eben Bizkaiko Eskolarteko Pala Txapelketea benjamin-alebin kategorian, eta Zeanuriko palariak, infantil-kadete A kategoriakoa. Emon genduan horren barri aurreko zenbakian, baina albistea Zeanurikoen argazkiagaz bakarrik joan zan. Arratian kirol batzuk etorkizun handia daukielakoan, Areatzako palari gaztetxoaren erretratua be atera gura izan dogu, Bizkaia mailan lehenak izateak merezidu daualako erretratuan agertzea. (Eta gehiago).

Frontoi zaletasun handia dago gurean baina oraintsu animau dira neskak espazio hori euren egiten; hau da, kaleak, gauak eta jaiak legez, kantak be okupetan. Akaso, laupabost urte barru, Arratiakoak zapatu eta domeka arrastiko ETBK emitiduten dauzan partiduetako protagonistak izango dira, eta horregaitik inportantea da euren arpegiak ezetuten joatea.

Zorionak bikote biai!



**Gorosti** Lorategien Diseinu eta Gauzatzea  
Ureztaketa instalazioa  
Mantenua eta Inausketa

Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea  
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88  
gorosti@gorostisc.com

**agoa** Ortodontzia  
Implanteak  
Estetika

Marina Urigoitia Aldekoa  
Ondarribia

Bidebarri 1, behea  
48140 Igome-Bizkaia  
T. 94 631 50 39  
Kalegori Zerbait 100  
R.P.S. 21/06

**Beer & Edariak s.l.**

HEINEKEN SOLARES

Polig. Mendaketa, n.º 3. 48550 LEZMOA, Bizkaia  
Tel: 000-4808399 eta 000200717

**FISIK**  
FISIOTERAPIA ETA  
ERREHABILITAZIO ZENTROA  
Tel. 94 685 11 16  
LEHENAKARI AGIRRE, 17 - IGORRE



## BEDIA

# Gauberdian biztuko dabe San Juan sua bediaztarrak

**Bediako jaiak dibertigarri bezain seguruak izatea gura dau Jai Batzordeak. Holan, zapatu gauean, kotxea hartu barik norberaren herrira bueltetako Arratiako Udalen Mankomunitateak ipinten dauan autobusa hartu, edo tren geralekura taldean joateko aukerea egongo da.**

### Erredakzioa

Izan be, tren geralekua herri-  
tik apur bat aparte geratzen da  
eta askori atzera egiten deutso  
gauean eta bakarrik hara joateak.  
Autobusa goizaldeko 02:30ean  
eta 05:00etan hartu daiteke. Tren  
geralekura alkarregaz joateko,  
01:50ean, 02:40ean, 03:50ean  
eta 04:40ean batuko da jentea  
udaletxepean. Sensibilizazio  
stand-ean, drogen inguruko infor-  
mazinoa eta preserbatiboak ban-  
anduko ditue. Eta eraso sexistak  
ebitau guran, Beldur Barik Gunea  
egongo da plazan.

San Juan bezperan suaren ingu-  
ruan batuko dira danak; mozorro  
gaua ospatuko dabe eguenean,  
eta kontzertuak eta erromeriak, le-  
hiaketa gastronomikoak, antzerkia,  
bertso-saioa, xake bizia, antxinako  
auto eta motorren erakusketea  
eta I. Bediako Slalom-ak, ondo pa-  
setako aukerea emongo deusie  
gustu desbardinatetako jenteari.

### Bagilak 18, domekea

10:00etatik 14:30era arte, XVII.  
Eskulangintza eta Elikagaien  
Azokea.

12:30ean, Arratia Kantuz.

14:00etan, Bediako jubiladuen  
bazkaria.

### Bagilak 22, eguena

20:00etan, jaien hasikerako pre-  
goia eta txupinazoa, trikitixaz eta  
dultzainaz alaituta. Sardina-jana.

20:30ean, VIII. Igel Txapelketea.  
Laguntasuna tabernak antolatuta.



21:00etan, Jokaldi erromeria tal-  
dea, Play-backa eta mozorro gaua:  
Olinpiadak.

### Bagilak 23, barikua

19:00etan, Tortilla Lehiaketarako  
izen emotea.

20:30ean, tortillak aurkeztuteko  
unea.

21:30ean, herri afaria.

22:30ean, Jauziri Bediako jantza  
taldea.

24:00etan, San Juan sua.

00:30ean, Akerbeltz erromeria  
taldea.

### Bagilak 24, zapatua

12:00etan, meza nagusia.

12:00etan, Paella Lehiaketarako  
izen emotea.

14:00etan, paellak aurkeztuteko  
unea.

17:00etan, Mus Txapelketea Batzo-  
kiak antolatuta.

17:00etan, umeentzako tailerrak  
eta Beldur Barik gunea.

18:00etan, xake bizia.

22:00etan, sensibilizazio stand-a  
kioskoan.

22:00etan, kontzertuak: Akabu,  
Hesian eta Oxabi.

### Bagilak 25, domekea

12:00etan, eskupelotea, herrikoak  
tartean, eta nesken pala partidua.

12:00etan, pote eta pintxo txos-  
netan.

12:00etan, antxinako auto eta  
motorren erakusketea.

15:00etan, I. Bediako Slalom-a,  
Club Automovilístico Bizkaiak an-  
tolatuta.

19:00etan, Zeani Antzerki Taldeak  
*Amari mutik bez* antzezlan.

20:30ean, *Ez da kasualitatea*  
bertso-saio musikatua.

### Bagilak 26, astelehena

12:00etatik 13:30era arte, puzga-  
rriak eta jokoak.

17:00etatik 19:30era, puzgarriak,  
jokoak eta bitsa.

17:00etan, XXXVII. Briska Txapel-  
ketea. Bikotekide bat behintzat  
Bediakoan izan behar da. Izen  
emotea 6 euro bikoteko.

20:00etan, txokolatadea jaiari  
amaiera emoteko.

## ARANTZAZU

# Uckaia eta Gozategi taldeak animauko dabe sanpedro bigarreneko gaua

### Erredakzioa

Txupina bagilaren 30ean botako  
badabe be, jaiak bezperan, San  
Pedro egunean bertan hasiko  
dira, jubiladuen kopauagaz. Bariku  
gauean, izango dira jaietako kon-  
zerturik garrantzitsuenak, Uckaia  
eta Gozategi taldeen eskutik. Buru-  
handiak, trikitilariak, tortilla eta pae-  
lla txapelketak eta erromeria ez dira  
faltauko Arantzazuko jaietan.

### Bagilak 29, eguena

13:30ean, jubiladuen kopaua.

### Bagilak 30, barikua

18:00etan, trikitilariak.

19:00etan, txupinazoa, buruhan-  
diak, Larrain jantza eta trikipotea.

23:00etan, kontzertuak: Uckaia  
eta Gozategi.

### Garagarrilak 1, zapatua

10:00etatik 13:30era, puzgarriak.

11:00etan, jolasak. Herri kirolak.

14:30ean, Tortilla eta Paellen  
Txapelketarako, tortilla eta paella  
aurkezpena.

18:00etan, Txinga eta Txapel Bo-  
tatze desafioa.

20:30ean, erromeria Jokaldi tal-  
deagaz.

### Garagarrilak 2, domekea

13:00etan, Igel Txapelketea.

17:00etan, Mus Txapelketea.

19:00etan, Zeanuriko antzerki tal-  
deak, *Amari mutik bez* antzelana  
eskeiniko dau.



## UBIDE

# San Juan bezperan arbola altxauko dabe

### Erredakzioa

Ubideko San Juan jaietako mo-  
menturik desiratuena, basora  
joan, zugatz bat moztu, herriko  
plazara eroan eta bertan altxatzea  
izango da, seguru asko. Tradizino  
ikusgarri hau urtero barrizatzen  
da Ubiden San Juan bezperan eta  
aurten be arbolaren bila joateko  
arrastiko seiretan plazan daukie

hitzordua ubidezarrak. Horregaz  
emongo deutsee hasikerea hiru  
egunetako jaiari.

### Bagilak 23, barikua

18:00etan, plazan batu arbolaren  
bila joateko.

19:00etan, arbola zutitu plazan.

21:30ean, afari truke herritarra.

22:30ean, San Juan bezperako  
sua plazan.



### Bagilak 24, zapatua

12:30ean, meza. Ondoren  
kopautxo plazan eta Adarhots  
tronpa taldearen musikea.

17:30ean, txotxongiloak.

22:00etan, pelota partidua.

24:00etan, erromeria.

### Bagilak 25, domekea

Egun osoan zehar puzgarriak.

18:00etan, Ubideko zirko esko-  
lako umeen emonaldia.

Ondoren parilladea.

**BEDIA**  
**Bediako Udalak eta jai batzordeak**  
Gora San Juan jaiak!  
**JAI ZORIONTSUAK OPA DEUTSUEZ**

**ARANTZAZU**  
**Arantzazuko Udalak eta Jai Batzordeak**  
**JAI ZORIONTSUAK OPA DEUTSUEZ**



## IGORRE

Igorre  
UEMA  
sartu da

## Erredakzioa

Bagilaren 5ean, udal osoko bilkuran, Igorrek Udalerri Euskaldunen Mankomunitateko (UEMA) kidea izatea onartu eban, EH Bilduren aldeko botoakaz eta EAJ-PNVren abstentzioagaz. Hurrengo zapatuan, hilak 10, UEMAk bere batzar nagusia Igorrek egindako eskaera onartu eban. Orain lau dira Arratiako UEMako kideak: Areatza, Artea, Dima eta Igorre, hain zuzen be.

2013an argitaratutako azken inkesta soziolinguistikoaren arabera, euskaldunak %75,28 dira Igorren. Oro har euskeraz bizi dira, baina udalerri euskaldun gehienetan legez, beherezko joera islatzen dabe datuak: 2001-2011

urteen artean 5,4 puntu egin eban behera euskerearen ezagutzeak. Erabilereari jagokonez, euskera lehen hizkuntza daukienen kopurua %50,3 da gaur egun. 2001n, aldiz, %61,2 zan.

UEMA euskerearen normalizazioan motore izateko sortu zan eta horretarako baliabideak eskeintzen deusez udalari. UEMAn sartzea, orain dala urte biko Igorreko EH Bilduren hauteskunde programan egon zan.

## EAJ-PNVren abstentzioa

EAJ-PNVk Igorreko Euskera Plana 2003an abiatu zanetik, sano lan ona egin dala eta normalizazioa izan behar dala helburua baina, horretarako UEMAk "tartekari" lanak egitea ez eban ezinbestekoztat ikusten. "Estruktura beraren mantentze gastuak suposatzen dau, eta errekurso horreek, Igorren eta ekintza zuzenetan erabiltea proposatzen dogu". Gainera, jeltzaleen ustez, UEMArekin eginkizunen eta udal teknikarien eginkizunen artean, "bikoztasunak nabariak dira".



Areatza, Artea, Dima eta Igorreko Udaletako ordezkariak.

## LEMOA

Cementos  
Lemonako  
beharginak  
enpresa  
hitzarmena  
sinatu dabe

## Erredakzioa

Hilabeteetako negoziazio eta mobilizazioen ondoren, hitzarmen kolektiboa adostu dabe Cementos Lemonan. Hitzarmena "ona" dala baloratu dau LAB sindikatuak. Izan be, hitzarmenak, LABentzat ezinbestekoak ziran hiru gaiak jaso ditu.

LABen arabera, akordioak KPtik gorako soldata igoerak jasoten ditu eta enpresearen malgutasuna murriztu; enpresek aurrez ezarritako beharginen arteko des-

bardintasunak ezabatu egin dira, soldata eskala bikotxa kendu da, soldatak gorantza bardinduz. Etor-kizunerako bermeari jagokonean, kontratazino barri bi adostu dira eta behargin kopurua mantenduteko konpromisoa lortu, "inoz Cementos Lemonako hitzarmen baten jaso izan ez dana".

## Enpreseagazko lan hartu-emon barriak

Mobilizazioak akordioa posible egin dabela dinoe sindikatutik, baita Cementos Lemonaren ehungarren urteurrenaren bezperetan mobilizazioak gogortzeko ebatziak be. Negozioaketa parte hartzailea izan dala eta interes partikularren gaintetik, interes orokorra ezartzen daben lan hartu-emon eredu barri baten bidean pausuak emon dabezala uste dau LAB-ek. Cementos Lemonako enpresa batzordean, 6 ordezkari ditu LABek eta hiru ELAK.

## LEMOA

Miliziano baten gorpuzkia  
atera dabe lurpetik Lemoan

Lemoatxen Aranzadik egindako desobiraketeta.

## Erredakzioa

Bagilaren 4an, Paco Etxeberriaren zuzendaritzapean Aranzadi Zientzia Elkarteko teknikariak, miliziano ezezagun baten hazurrak atera ebezan lurpetik Lemoatxen. Persona baten hazurrak, garrikoaren belarria, naruzko kartuxerea eta munizinoak topau eben bertan. Milizianoa, 1937ko bagilean hilgo zan seguru-erik, Lemoatxeko batailan edo inguru horretan 1937ko maiatzaren 29 eta bagilaren 5aren bitar-

tean gertatu ziran burrukal dietan.

Memoria historikoa berreskuratzeko eskubide eta betebeharran, erakundeen konpromisoa agertzeko, heritararak eta Saioa Elejabarrieta Lemoako alkateagaz batera, Josu Erkoreka Gobernantza Publiko eta Autogobernuko Sailburua eta Jaurilaritzaren bozeroalea; Aintzane Ezenarro, Gogora, Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuaren zuzendaria; Josune Gorospe eta Maddalen Iriarte legebiltzarkideak egin ziran milizia-

noaren gorpuzkia desobiratzeko momentuan. Orain, milizianoa identifiketan eta familia bilatzen saiatuko da Aranzadi.

Lemoatx inguruan egindako 4. desobiraketeta izan da hau. Bakotxean, gorpuzkin bakarra agertu da, hirugarrenean izan ezik, haretan hiru hildakoren hazurrak topau ebezan-eta. "Momentuz bakarra identifikatu ahal izan dogu eta berau familiari entregatu jakon" azaldu deusez Saioa Elejabarrieta Lemoako alkateak.

## Lemoatxeko batailea

1937ko maiatzaren 29tik bagilaren 5era bitartean burruka gogorrak egon ziran Lemoatx inguruan, hau frankistentzako leku estrategikoa zalako Bilbo hartzeako. Lemoan asko hil ziran Bilboko Burdinazko Hesia defendiduten, baina maiatza eta bagila artean frankistak lortu eben Lemoatx eurenaganatzea. Orduan, bagilaren 2 eta 3an asturiar brigada batek eraso egin eban arrakasta barik. Hurrengo egunean VI. Euskal Brigadak, azken garaipen euskal-errepublikarra lortu eban Lemoatxen, baina bagilaren 5ean, armada frankistek, hegazkinen laguntzeagaz, hartu eban barriro Lemoatx.

Frankistak euren hildakoak eroan ebezan lurperatzeko eta topautako hazurrak Lemoatx defendiduten hildako milizianoaren batenak izateko probabilitate asko dagoz.

## LEMOA

Udalak ume eta gazteakz batera  
ezabatuko ditu feminismoaren  
kontrako pintaketak

Lemoako kiroldegian agertutako pintaketak.

## Erredakzioa

Maiatzaren 31n, Lemoako kaleetan, gizon eta andren arteko bardintasunaren kontrako pintadak agertu ziran. Kiroldegi ondoan dagozan euskera eta feminismoaren aldeko muralak "Feminazis" idatzita eta esbastikak marraztuta agertu ziran. Udalak pintaketak gaitzetsi ebezan eta horreek kendu eta muralak lehengoratzeko, bagilaren 16ko goizean zehar, ume eta gazteakz sensibilizazio ekintzak egingo ditu Lemoa eus-

kalduna eta feminista lelopean, eta 14:45etik aurrera egingo diran bermargozketa lanetan parte hartzera konbidatu ditu. Arrastian Photocall herrikoia egingo da.

"Herria guztiona dala gogora arazo gura dau Udalak. Beharrezkoa da guztionak diran eremu publiko eta pribaduak zaintzea eta errespetatzea herritarren arteko alkarbizitza hobetuteko". Udalak, bardintasunaren alde egiten daua lan arlo guztietan eta hemendik aurrera be holan jarraituko daua adierazteko.

## IGORRE

Eraso sexisten  
kontra

## Erredakzioa

Herritar batzuek deituta, Igorreko Udalaren atxikimenduagaz, bagilaren 5ean, 50 lagun inguruk konzentrazioa egin eben Igorreko Kultur Etxe parean, eraso sexisten kontra agertzeko.

Udal iturrien arabera, aurreko astean Olabarri auzunean, andragizonen arteko errietaldi handia entzunda, auzotarrak gizona erretenu eta Ertzaintzari deitu eutsien. Ertzaintzak gizona atxilotu eban.

Gizonaren ustezko erasoaren aurrean eta "Erasorik ez erantzunik gabe" leloari jarraituz, auzotarrak konzentrazioa deitu eben, eraso sexistak ez dituela onartzen eta andreaki solidaritatea adierazteko.





## ARRATIA

# Errogatibak Urkiolara bagilaren 17an

Erredakzioa / Jon Urutxurtu

Tradizioari jarraituz, San Antonio egunaren osteko zapatuan, hilak 17, egingo dabe arratiarrak errogatibea Urkiolan. Urtero lez, oinez zein autobusez egin ahal izango da Arratiatik Urkiolarainoko bidea, 11:00etan han egoteko. Autobusaren ordu-tegiaren barri parrokietan emongo dabe. Errogatibarako, "Arratia: 9 seme-alaba, familia bat" lema aukeratu dau aurtan Arratiako eleizeak.

Lehenago herri bakotzak bere errogatibea antolatzen eban, baina azken urteotan, Arratiako parrokiak guztiak aldi berean joaten dira Urkiolara; horretarako, Arratiako Udalen Mankomunitateak lau autobus ipiniko dauz. Autobusean joan etorria egiteko, ala etorteko baino ez bada be, izena emon behar da aste bete lehenago.

Arratiatik Urkiolara joateko oinezko ibilaldi gidatuak izango dira Dimatik, Igorretik eta Zeanuritik

abiatuz. Dimako plazan goizeko 06:00etan izango da urteke-rea, Igorren be ordu berean San Antonioren ermitatik abiatuz, eta Zeanurin plaza ondoko San Antonio txikerraren ermitearen aurretik abiatuko dira erromesak, 07:30ean. 11:00etan mezea entzun ostean, talde-argazkia egin, eta Gorbeialde Landa Garapenerako Alkartek eta Igorreko Jubiladuen Alkartek kopaua eskeiniko deutsee erromesai.

### Argazki Lehiaketea

Zulaiabar Lanbide Ikastegiak argazki lehiaketea antolatu dau, errogatibea gai moduan hartuta. Saria 200 euroko bonoa izango da Arratiako Merkatarien Elkarteko (AME) establezimentuetan gastetako. Argazkiak emailaz edo postaz bialdu ahal izango dira honako helbideetara: errogatibea@zulaiabar.org edo Arratiako Andra Mari Parrokia, Elexalde 22, 48140, Igorre.



## AREATZA / LEMOA

# Aire zabaleko igerilekuak udaldia hastear

Erredakzioa

Lemoako aire zabaleko udal igerilekuak bagilaren 17an zabalduko dabez atea eta egun bi beranduago Areatzakoak. Areatzakoak urri lehenengoaren 10era arte egongo dira zabalik eta Lemoakoak 17ra arte.

Areatzako igerilekuetako ordutegia, aurreko urteetakoak izango da. Hau da, 11:00etatik 20:00etara. Prezioak desbardinak izango dira lanegunetan eta jaiegunetan. Lanegunetan, helduak 4 euro eta umeak 2 pagau behar izango dabez eta jaiegunetan 5 eta 3, hurrengo hurrengo. Sasoi osorako bonoak erosi ezkeror barriz, herrikoak 55 euro pagau beharko dabe familiako bonoa edo 35 banakakoa persona

helduarentzat eta 25 umearentzat bada. Beste herrietakoak, familiakoa 90 euro, eta banakakoa 55 euro helduak eta 35 euro umeak pagau behar dabez. Igorre eta Arteako Udalakaz egindako hitzarmenai esker, Areatzako herritarren moduan pagauko dabe Igorre eta Arteakoak.

### Lemoako igerilekuak

Lemoan be goizeko 11:00etan zabalduko dira piszinak, baina, bagilean eta urri lehenengoan 19:30ean, garagarrian 20:30ean eta abuztuan 20:00etan zarratuko dabez atea. Prezioak jagokienean, 3 urte arteko umeak ez dabe pagau behar eta eguneko prezioak 2 eta 5 euro artean dagoz. Hamar sarrerako bonuak be erosi daiekiz Lemoan erroldatutakoak. 26 urte baino gixiago eta dibersidade funtzionala daukienak 15 euro pagau beharko dabe; 26 urte baino gixiago edo langabezia dagozanak 25 euro; eta 35 euro, 26 urtetik gorakoak.

## DIMA

# Abizarie euskera alkarreak botako dau txupina jaiai hasikerea emoteko

Sanpedro egunean, arrastiko zazpiretan botako dabe txupina, baina ordurako jaigiroan murgilduta egongo da Dima.

Erredakzioa



Eguzketik domekara arte, kontzertuak, erromeriak, antzerkia, lehiaketa gastronomikoak... Herri kirolak jagokienean, Aitzol Atutxak, Ruth Linazak, Irati Astondoak, Jon Loiolak eta Jose Martin Bustinza "Tubi" k egingo ditue erakustaldiak. Eguen, bariku eta zapatu gaubetan, kontzertu eta erromeriak animetako, 10 taldek zein bakarlarik eskeiniko dabe euren musika.

### Bagilak 29, eguna

12:00etan, umeentzako tailerrak eta serigrafia (kamisetak norberak eroan).

12:00etan, San Pedro mezea.

13:00etan, 85 urtekoai omenaldia. Ostean jubiladuentzako bazkaria.

17:30ean, eskaladea danontzat frontoi handian.

18:30ean, PintxoTxapelketea ume eta gazteentzat.

19:00etan, txupina: Abizariak. Bitartean, Eurt euskerara! Erakusketak. Jantzak Gaztebarri taldeagaz. Kuadrillen Lehiaketearen I. Proba.

19:30ean, Vademekun malabare eta akrobaziak.

20:00etan, Tortilla eta Tostada Lehiaketea.

22:30ean, Erromeria: Ezten giro eta DJ Balber-egaz.

### Bagilak 30, barikua

18:00etan, Talentu Lehiaketea.

18:30ean, umeentzako herri kirolak.

19:30ean, herri kirolak: Aitzol Atutxa, Ruth Linaza, Irati Astondo, Jon Loiola eta Jose Martin Bustinza "Tubi".

20:30ean, kantu-poteoa Zamakola alkarrearen abesbatzaren eskutik.

21:30ean, andren esku pelota

partidua eta plazako III. Txapelketa finala frontoi txikian.

22:00etan, kontzertua: Inun.

23:30ean, jantza-Playbacka.

00:30ean, kontzertuak: Desore eta Aizu (Kortaturen bersinoak).

### Garagarriak 1, zapatua

11:30ean, umeen duatloia.

13:00etan, kantu poteoa Otxote Muñatones-en laguntzeagaz.

18:00etan, andren pala partidua eta Dimako pelota eskolako finalak.

19:00etan, Zaratak 18 elektrotxaranga, bitartean kuadrillen arteko jolasak.

20:30ean, taloak.

22:30ean, kontzertua Abaroan: Akabu taldea eta EH2000 Rap taldea.

00:00etan, euskal errepresaladuen giza eskubideen aldeko ekitaldia.

00:30ean, kontzertua: Belatz eta Etsaiak.

02:00etan, erromeria Gora Herria taldeagaz.

### Garagarriak 2, domekea

11:30ean, puzgarriak.

14:30ean, Paella Lehiaketea. Herri bazkaria, paella jana (tiketak tabernetan) eta kantaldia, Kantu bat gara taldearen laguntzeagaz.

18:00etan, Karol Perexilegaz umeentzako jolasak.

19:00etan, bertsolariak: Alaia Martin, Igor Elortza, Oihana Bartra eta Uxue Alberdi. Jaietako errifea.

20:30ean, antzerkia, *Bi izarren kalenturak* (Iñake Irastorza eta Ane Gabarain).

21:30ean, kuadrillen agurra eta txokolata.

## IGORRE

# Maddalen Iriarte Igorren egongo da hilaren 22an



Maddalen Iriarte.

Erredakzioa

Maddalen Iriarte EH Bilduko legebiltzarkidea eta EAEko hauteskundeetako lehendakari izandakoa Igorren izango da bagilaren 22an, 20:00etatik aurrera, Kultur Etxeko Lasarte Aretoan.

2015-2019 legeingintzaldien erdian Arratia mailako ekitaldia egin gura izan dau EH Bilduk, orain arte egindako lanaren balantzea egin eta aurrera begirako proiektuak indartzeko. Izan be, ekitaldiaren helburua, 2015eko "emoitzen oinarri sendoa" eta egitasmoaren "indarra eta freskotasuna" aldarrikatzea da.

EH Bilduk, oraingo legeingintzaldian, Arratiako sei herritan dauka alkatetzeta: Areatza, Areatza, Artea, Dima, Igorre eta Lemoan, hain zuzen be.

### Talde argazkia

Arratiarrak Maddalen Iriartek berba egingo dauan ekitaldira deitzeako, Igorreko EH Bildukoak talde argazkia atera eben bagilaren 10ean.





## BIZI PROIEKTUA

# Igorre lagunkoi bat egiteko, 60 urtetik gorakoen proposamenak aurkeztuko ditue Kultur Etxean

Igorre, hirugarren adinekoakaz herri lagunkoiak egiteko prozesuan, diagnostikoa eginda daukan 5.000 biztanle baino gitxiagoko Bizkaiko lehenengo herria izan daiteke. Izan be, Udalaren ekimenez, Bizi izeneko prozesu parte hartzailean, 60 urtetik gorako igorretarrek, Maraka taldearen laguntzeagaz, edadekoen bizimodua hobea izan daiten, diagnostikoa egin eta hainbat proposamen batu ditue Udalari aurkeztutako dokumentu baten. Hirugarren adinekoen ikuspegitik egindako diagnostiko hori jentaurrean aurkeztuko da bagilaren 21 ean, 18:00etan, Pleno Aretoan.

eta inklusinoa eta garraioa. Eta 2017an, beste laurak aztertu ditue.

## Kale eta espazio publikoaren azterketea

Igorreko kale eta espazio lagunkoiak eta ez lagunkoiak identifiketako, maiatzean kalera urten ziran Bizi proiektuko partaideak. "Hiru talde sortu ziran, distantzia eta zailtasun edo kapazidade desbardinaren arabera, eta bakoxtari emon jakon esplorazio kit bat. Baita, argibideak, zer egin behar eben, eta dinamikearen helburua" azaldu deutso BEGITU Eider Aldape Marakakoak. Dinamikearen helburua Igorreko gune lagunkoi eta ez lagunkoiak identifiketea, eta zergaitia aztertutea zan. Ordubeta t'ardi ibili ziran partaideak Igorretik zehar lekuok

### Erredakzioa

Zortzi saio izan dira eta bertan 42 personak hartu dabe parte: 60 eta 70 urte bitarteko 14 andra eta 11 gizonek; eta 70 urtetik gorako 11 andra eta 6 gizonek. Saioez gainera, Marakakoak 11 alkarrizketa egin deutseez hirugarren adinagaz loturea daukien eragilei edo, saioetara joan ezin baina parte hartu gura eben edadeko personai. Jagoleakaz be egin dabe saio bat eta 80 urtetik gorako personakaz beste bat. Saio honetara, 22 persona hurreratu ziran 90 eta 91 urte bitartekoak, 17 andra eta 5 gizon.




Lan saioak.



identifiketan eta emoitzak, Udalean aurkeztuko dan dokumentu baten jaso ebezan.

Bizi batzordeak Udalari entregauko deutan diagnostikoan zeintzuk beharriazek daukien lehentasuna be azalduten da. "Asmoa da, Udalak diagnostiko hori aztertutea eta, oporren bueltan, deialdia egitea plan bat gauzatzen hasteko" azaldu deutso BEGITU Itsaso Bengoetxea zinegotziak. Beti be kontuan eukita, zeintzuk egin daitekezan, -aurrekontua dagoalako eta Udalaren eskumenen barne dagozalako- eta zeintzuk ez.


90 eta 91 urte bitarteko  
17 andrak eta 5 gizonek  
hartu dabe parte  
Igorre lagunkoi egiteko  
prozesuan



**Udarako BEGITUREN kamiseta barriak salgai**

**10 eurotan, Begitu-lagunak 8 euro**

**Bialdu mezua [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com)  
helbidera neurria adierazoz**





## BIZI PLAZA PROIEKTUA

# Oinezkoentzako plaza seguru eta irisgarria gura dabe dimoztarrak

### Erredakzioa


Bizi Plaza izenpean, urtailaren 29tik zezeilaren 23ra, edade desbardinatoko herritarrak egin ebezan lan saioak Xoko Espazio teknikiari, diagnostikoa lehenengo, eta gero, diseinu barrirako proposamenak egiteko. Lan saioetako partaideak, herriko plazeak ibilbide seguru eta irisgarriak eukitea gura dabe, eta autoak bakarrik Taberna Barri eta udaletxearen artetik eleizarako tartean eta norabide bakarrean ibiltea. Diseinu honek, dana dala, zati bitan bananduko dau plazea eta Landaburu kaleko zirkulazioa be berrantolatu beharko da.

Dimako plazea diseinetako prozesu parte hartzailea eta orain arte ateratako ondorioak azaldu ebezan jentaurrean prozesua dinamizetan dauan Saioa Zuazubiskar arkitektuak maiatzean. Parte hartzaile kopurua eta egindako proposamenetan lortutako adostasun maila azpimarratu ebazan. Baita Biko Komunikazioaren eta Udal taldeak egindako komunikazio lana be. Izan be, hareri esker "herri guztiak" izan ebala prozesuaren barri esan eban. Prozesuan, 69 nagusik, 52 umek eta horreen 5 irakaslek hartu dabe parte.

### Oinezkoentzako diseinua

Plazea oinezkotzearen aldekoak izan ziran proposamen guztiak; hau da, plaza izaerea berreskuratzea eta herrian oinezkoen espazio erreferentea bilakatzea gura dabe dimoztarrak. Lan saioetan, beharrezkoak diran edo ez diran elementuen inguruan hausnartu eta etorkizuneko diseinua pentsetako hiru zonaldeetan antolatu zan espazioa: alde batetik udaletxeak eta Aramotz taberneak osotuten daben isla; bestetik, Landaburuko

Kotxeak plaza izaerea galdu arazo eutsien Dimako plazeari. Izan be, batez be aparkalekua da gaur egun eta autoen zirkulazioa be bertatik pasetan da. Plaza izakerea berreskuratzea guran, herriko plaza berrantolatzeko prozesu parte hartzailea abiatu eban Udalak, Xoko Espazioren eskutik.



harmailen azpikaldea, eta azkenik Taberna Barri eta Baltzolaren terrazetatik Frontoi Txikira arteko espazioa.

Autoen zirkulazioaren gainean, adostasuna egon zan: autoak izango daben zirkulazioa bakarrik Taberna Barri eta udaletxearen artetik eleizarako tartean izango da. Noranzkoa ebatzi barik geratu zan. Dana dala, ebatzi honek eragin zuzena dauka Landaburu kaleko bizilagunen auto bidezko irisgarritasunean, Frontoi

Txikiko aldapako zirkulazioa debekatzeak Landaburu kaleko zirkulazioa berrantolatzeko dakar eta.

Etorkizuneko diseinuaren inguruan be, ia erabateko adostasuna egon zan parte hartze prozesuan. Dimoztarrak argi daukie zelango plazea gura daben, eta oinezkoen ibilbide seguru eta irisgarriak izango dira diseinu barriaren ardatza. Dana dala, antolaketeari jagokonez, autoen zirkulazioak bi zonalde nagusitan bananduko



dau plazea.

Bestalde, plaza atondu eta erabilera egokia emotea ahalbidetzen dauan diseinua lortzea lehenesten dabe dimoztarrak. Ez da plaza ikusgarri bat proposatuten; altzari egokiak daukana, elementu naturalez jantzia dagoana eta erabilera desbardinatarako moldagarria dana baino. Era berean iraganeko zezen plazeari keinu bat egin gura deusie, eta lehenengo izakerea berreskuratzeke gai izan.

### Plazearen erabiltzaile eta erabilerak

Ume eta nagusiak plazako zona desbardinatuta eta modu desbardinatuta erabilten dabe. Ume txikiak frontoi inguruan ibiltzen dira; 7 eta 12 urte bitarteko umeak, barriz, Landaburuko gunea daukie gustukoan, apur bat isolatuta dagoalako, bertan kotxerik ez dagoalako eta ikuspegi ona daukalako. Goiko aldean eta harmailetan ibiltzen dira normalean adin honetakoak. Baita udaletxeke arkupean wifi-a dago-eta.

Gazteak ez dira plazako ohiko erabiltzaileak, kotxea daukienak aparketako erabilten dabe batez be. Gurasoak barriz, seme-alaben aisialdian edo euren alkargune moduan erabilten dabe ingurua. Plazako tabernetan, udaletxean edo liburutegian egoten dira. Frontoi inguruan egotekotan, jarkuetan, balkoian edo inguruko tabernetan egoten dira.

Nagusiak, plazan, tabernetan ibiltzen dira eta Landaburur, jarkuetan zein pasean bertan dagoalako "eguzkia, kerizpea eta lasaitasuna".

Iraganeko zezen plazeari keinu bat egin gura deusie, eta lehenengo izakerea berreskuratzea

**ZURE ZERBITZURA**

- ✓ Avia guztira 176 gasolindegil
- ✓ Avia Adenor 35 gasolindegil

ADENOR Igorre  
www.aviaenergias.es



**GURE BIHOTZA**

- ✓ Operazio-Zentroa Bilboko Portu Autonomoan





## MARATOI TXIKIA

**Onditz Iturbe igorrezarrak eta Ekaitz Kortazar durangarrak irabazi eben Arratiako Maratoi Txikia****Erredakzioa**

Igazko moduan, Onditz Iturbe eta Ekaitz Kortazar igon ziran podium-eko kajoirik altuenera Arratiako Maratoi Txikiaren XXXVIII. edizinoan. Eukeni Bikarregi Lemoakoak eta Tomas Laso de la Fuente irabazi eben beteroan. Beste kategorietan ez zan sailkapenik egin eta parte hartu eben ume guztiak domina bana jaso eben.

Euria egin arren, partaidetza handia izan zan. Zeanuritik 153 lasteketari urten ziran eta 200 ume baino gehiagok egin eben Igorreko zirkuitua. "Ez genduan hainbeste ume espero eta domina faltan geratu gara, baina falta diranak enkar-gauko doguz eta inor ez da geratuko domina barik" azaldu deutso BEGUTURI Imanol Agirre antolakuntzakoak.

Igaztik Arratiako Maratoi Txikia Arratiako eskoletako guraso alkar-teak antolatuten dabe eta umeen artean kirola sustatu gura dabe, baina planteamentu lehiakorra egin barik. Horregaitik ume partaide guztiak izaten dabe saria.

**Nagusien sariak**

Andrazko eta gizonetzkoetan, nagusi eta beteroan kategorietako lehenengo hirurak garaikurra jaso eben. Honeexek izan ziran podiumera igo ziran korrikalariak.

**Nagusiak****Andrak**

1. Onditz Iturbe Arginzoniz.
2. Naiara Lekanda Rozas.
3. Maria del Carmen Alegre Martinez.

**Gizonak**

1. Ekaitz Kortazar Zenikaonandia.
2. Iñaki Pujana.
3. Xabier Asua Musatadi.

**Beteranoak****Andrak**

1. Eukeni Bikarregi Uriarte.
2. Loli Herrero Francisco.
3. Ainhoa Iza Artabe.

**Gizonak**

1. Tomas Laso de la Fuente.
2. Jose Luis Viales Blanco.
3. Alberto Talledo Pinero.



Onditz Iturbe erdian irabazlearen garaikurragaz.

## AZKOREA

**Aitzol Atutxak banakako Urrezko Aizkorako txapela lortu dau bigarrenenez****Erredakzioa**

Dimoztarrak 19 segundo atera eutsazan Iker Vicente bigarrenari, bagilaren 4an Azpeitian jokaturako finalen. Finala estua izan zan baina Atutxak, txapeladuna eta faboritoak, txapelari eustea lortu eban.

Lan guztiak egiteko 26 minutu eta 42 segundo behar izan eban. Lehenengo bi lanetan Jon Rekondo Leitzakoa izan zan azkarrena eta 14 segundo kendu eutsazan Atutxari. Hor Iker Vicentek be aurrea hartu eutsan Dimakoari. Baina hirugarrenean, txapeladuna izan zan azkarrena eta behin-behineko sailkapenari buelta emon eutsan eta lehenengoa jarri zan. Laugarren proba be Atutxak ira-

bazi eban eta azkena Iker Vicentek.

Lan guztiak egiteko Atutxak 26 minutu eta 42 segundo behar izan eban, Iker Vicente bigarrena izan zan, 27 minutu eta 01 segundoko denporeagaz; Mugertza



Aitzol Atutxak bigarrenenez irabazi dau Urrezko Aizkora.

## MENDI MARTXEA

**Hiru ibilbide aukeran Arteako Auzorik Auzo mendi ibilaldian****Erredakzioa**

Bagilaren 25ean, 08:30ean, batuko dira Arteako plazan, Auzorik Auzo mendi ibilaldirako partaideak eta bertan, 3 ibilbideren artean aukeratuko dabe. Ibilaldi luzea 34 km. ingurukoa da, aldapan behera galapan eta gorantza arin egitekoa. Hamabost km. inguruko beste ibilbide bat egongo da, eta hirugarren bat, laburragoa,

umeakaz be egiteko modukoa.

Hogei urtez Arteako auzoak ezetuten emoteko helburua eukan mendi martxea izan da, baina aurtan eredu aldatu gura izan dabe AKKT-ko antolatzailak, eta "martxa izan beharrean, mendi urtekeria herritarra" antolatuko dabe. Hau da, bidea ez da markauta egongo baina ibilbide bakotxerako arduradun bat egongo da. Ibilbide bakotxeko partai-

deak taldean joango dira eritmo bardintsuan eta leku konkretu batzuetan geratuko dira taldea batzeako.

**Urrezko Aizkorak**

Beste kategoriatan batzuetara be zabaltzen doa Urrezko Aizkora eta aurtengo edizinoan, lehenengoz, andrazkoetako finala jokatu zan. Iru- ne Izkue nafarrak lortu eban txapela.

Mutilen 23 urtez azpikoa Etxebarria II.ak irabazi eban eta 19 urtez azpikoetan, Zelai III.ak.

deak taldean joango dira eritmo bardintsuan eta leku konkretu batzuetan geratuko dira taldea batzeako.

**Plazan kopautxoak**

Antolakuntzak partaideak ur botilatxoak eta jateko zeozer eroatea eskatzen deutse. "ur botilea iturrietan edo hornidura punturen baten beteteko, eta jateko apur bat hornidura puntuetan ez da askorik egongo eta". Hori bai, amaitukeran, plazan, kopaua egongo da ibiltarientzat. Dan-dana ez dala aldatu behar eta betiko moduan, tortillea, txorizoa eta ardaoa ez dira faltakoa.



**ALKIZABAL**

ZURE BEHARREI ERANTZUNA

Bolunburu Poligonoa, 19  
Amorebieta - Lemoa errep.  
48330 LEMOA (Bizkaia)

Tel. 946 31 44 06  
Fax. 946 31 20 26  
alkizabal@alkizabal.net

[www.alkizabal.net](http://www.alkizabal.net)











**ERAIKUNTZA ETA INDUSTRIARAKO SOLUZIOAK**

ERAIKUNTZA, LOREZAINZA, EKITALDI ETA INDUSTRIARAKO MAKINERIA KONPONKETA ALOKAIKURUA ETA SALMENTA



## TXIRRINDULARITZEA

### Oskar Garro hirugarren, Errepideko Espainiako Txapelketan

#### Erredakzioa

Oskar Garro txirrindularitza egokitutako ziklista igorretarra podiumera igo zan Espainiako Txapelketako bidekoan, hirugarren eginda, Maurice Ekard eta Antonio Garcia-ren atzetik. Txapelketea Malagan jokatu zan, maiatzaren 27 eta 28an, eta Garrok Euskadiko Selekzioagaz hartu eban parte.

Lasterketea gogorra izan zala dino txirrindulariak. "Oso-oso gogorra izan zan, erritmoa azkarra eta ibilbidea gogorra izan ziran, baina oso pozik geratu nintzan".

Bezperan, 14 km.ko erlojupekoan bosgarren egin eban.

#### Denporaldi ona

Aurten be denporaldi ona egiten dabil eta Espainiako Txapelketako lasterketea ez da izan podiumera igo dan aldi bakarra. Izan be, aprilaren 13tik 15era Tafallan jokaturako Espainiako Pista Txapelketan, abiadura modalidadean, Euskadiko selekzioa izan zan txapeldun Valentziaren aurretik. Gero, kilometro eta persekuzino modalidadeetan bigarren egin eban Igorrekoak, eta bere markea

urtean-urtean hobetuten doa.

#### Munduko Kopa

Orain atsedena hartu eta bagilaren 30etik garagarriaren 2ra Emmen-en (Herbeherak) jokaturako Munduko Kopako hirugarren

saioan, lehenengo postuetan geratzen ahaleginduko da. Munduko Kopako aurreko saioa, Manigo-n (Italia) izan zan. Han, erlojupekoan 15. egin eban. Berrogetahamar kilometroko lasterketea barriz, ezin izan eban amaitu jausi zalako.



Oskar Garro podiumeko hirugarren lekuan.

## PELOTEA

### Lur Ziarrusta dimoztarrak Trinketeko Euskal Ligea irabazi dau

#### Erredakzioa

Atxarte pelota eskolako Lur Ziarrusta dimoztarrak eta Jon Aranok irabazi dabe eskuz binakako Trinketeko ligea Gazte mailan. Finala bagilaren 9an jokatu zan Abadinoko frontoian. Atxartekoak 40-38 nagusitu jakien Txukun Lakua klubekoak.

Dimakoa, trinketea, gazte mailako Bizkaiko txapelduna da. Izan be, aurten Bizkaiko txapel bi lortu dauz, banaka eta binakakoan.

#### Herriarteko torneoa

Bagilaren 11n jokatu ziran Dima Eskuzko Herriarteko Txapelketaren finalurrekoak. Dima Usansoloren kontra neurtu zan Kadeteak, Gazteak eta Nagusiak mailan, eta hiru partidua Usansolok irabazi eban. Kadeteak 21-22 galdu eban; Gazteak 15-22 eta Nagusiak 11-22. Dana dala, oindino dana ez dago galduta, eta bueltako hiru partidua irabazi ezkeron finalean egon daitezke.

Zeanuri be heldu da finaluurrekoetara. Markina euki eban aurkari eta 3 partidutik 1 irabazi eban Zeanurik. Kadete mailan izan zan, 22-1 emoitzeagaz. Gazteak 1-22 galdu eban eta Nagusiak 19-22.

## LASTO ALTXATZEA

### Jon Loiola dimoztarrak lortu dau Bizkaiko Lasto Altxatze Txapelketea

#### Erredakzioa

Txapelketea Arratzun jokatu zan bagilaren 4an. Han dimoztarrak nagusitu zan 23 jasoaldi eginda eta titulua berretsi eban. Izan be, igaz be bera izan zan Bizkaiko txapelduna.

Loiolak errez irabazi eban txapelketea, bigarrenak baino 3 jasoaldi

gehiago eginda. Algortako Beñat Amade izan zan bigarrena, 20 jasoaldigaz. Bingen Erleaga arrazuarrik 14 jasoaldi egin ebezan eta etxean jokatu arren hirugarren postuagaz konformau behar izan zan. Xabat Erleaga izan zan txapelketea jokatu eban laugarren kirolaria. Fardoa, 12 aldiz jaso eban honek.



Jon Loiola txapelagaz loba besoetan daukala.

## PELOTEA

### Giro ederrean jokatu ziran Arratia-Nerbioi final eta erakustaldi partidua

#### Erredakzioa

Bagilaren 3an, Arratia-Nerbioiko pelota eskoletako kideak eta pelotazale askok bete eban Areatzako frontoia. Hasibarriak eta Aurreumetxoak kategorietako partidua final moduan jokatu ziran; Orozkok eta Zaratamok irabazi eban hurrengo hurrengo. Umetxoak, Gaztetxoak eta Gazteak kategorietan, barriz, erakustaldi partidua izan ziran eta bertan, eskola diferenteetako jokalariek osotutako bikoteak hartu eban parte. Arratiarrak erakustaldi partidua jokatu ebezan.

Umetxoak kategorian, Dimako Iker Rekalde eta Zeanuriko Igor Egilior, Lemoako Julen Fernandez eta Adrian Lopezegaz neurtu ziran, eta Dima eta Zeanuriko bikoteak irabazi eban partidua. Gaz-

tetxoak kategorian be, Dima eta Zeanuriko eskoletako beste bikote batek jokatu eban, Zeanuriko Eleder Galarzak eta Dimako Aratz Burdalok osotutakoa hain zuzen be, baina Zornotzako Erdu eta Arrigorriagako bikotea nagusitu jakien. Amaitzeko, Gazteak kategorian, Zeanuri-Dima eta Zeanuri-Usansolo neurtu ziran. Zeanuriko Danel Beitiak eta Dimako Xabier Rekaldek irabazi eutsen Zeanuriko Eneko Artaraz eta Usansoloko Gabirel Bañuelos-eri.



## FUTBOLA

### Futbol udalekuak 6 urtetik gorako neska-mutilentzat

#### Erredakzioa

Arratia Futbol Taldeak, umeentzako futbol udalekuak antolatu ditu Igorreko Urbieta zelaian. Sei urtetik gorako neska-mutilak hartu daiek parte, garagarriaren 3tik 7ra edo eta 10etik 14ra, astebete zein bitan, goizeko 09:30etik 14:00etara.

Futbolaz gainera, beste kirol batzuk be praktikauko ditue umeak udalekuan: mendi ibilaldiak, herri kirola eta igeriketea, barbarako. Inskripzio kuotearen barruan ekipazio osoa eta eguneroko hamaiketako dagoz.

Informazio gehiago gura izan ezkeron futboludalekuak@cdarratia.com helbidera idatzi edo 617 803 440 telefonora deitu daiteke hilaren 16ra arte.

**E P A**  
Galdakao  
www.epagaldakao.com  
Matrikuletako epea, bagila osoa.  
Tifn. 94 456 60 98  
Helduen heziketa  
E.P.A.  
IGORRE: Elexalde 22. Eleizako lokaletan

**arratiako instalazioak s.l.**  
Berokuntza - Iturgintza - Gasa  
Aireztatzeko sistemak  
Aire zurgatze zentralizatua  
Suteak kontrolatzeko zerbitzuak eta mantentze lanak  
Igorreko Industrialdea  
Pab. D7  
Tel. Fax. 94 673 62 76  
Tel. 619 736 516  
48140 Igorre Bizkaia

**RUGBY**  
TABERNA  
Egin zaitetz bazkide!  
09:30etik zabalik  
Asteburretan pintxo bereziak  
arratiko.zekorak@gmail.com  
http://santxisme.blogspot.com/



## JABEKUNTZA ESKOLEA

93 andrazkok hartu dabe parte  
Arratiako Andren Jabekuntza  
Eskolako lehenengo ikasturtean

## Erredakzioa

Arratiako Andren Jabekuntza Eskolearen lehenengo ikasturtea arrakastatsua izan dala ondorioztatu daiteke maiatzaren 27ko topaketetan, Arratiako Udalen Mankomunitateko Bardintasun Teknikariak emondako datuen arabera. Izan be, Arratia eta inguruko herrietako 93 andrak hartu dabe parte, 11 tailer eta ikastarotan eta asebetetze maila, 0 eta 5 punturen artean, 4,36koa izan da batz bestea.

Danak oso ondo balorauta egon dira eta baloratuena eta asebetetze maila txikiena lortu dabenen arteko aldea ez da puntu batera heltzean. Dana dala, eskolearen lehenengo ikasturtean ikastarorik baloratuena Autodefensa feminis-

ta ikastaroa izan da, 4,8 puntugaz. Maitasun erromantikoari buruzko tailerrak (4,7) eta Umorea eta andrak (4,7) be sano balorazio ona euki dabe. Baina asebetetze maila bajaran lortu daberen ikastaroen notea be, "oso ondo" izan da; Menopausia eta orain zer? eta Zelan egiten gaitue andrazko? izeneko tailerrak 3,6 eta 3,9ko notak izan ditue hurrengo hurrengo.

Topaketan, balorazioaren ostean, partaideak 2017-2018 ikasturterako ikastaro proposamenak egin ebezan eta horreek zehazteko eta ikastaroak martxan ipinteko batzarrak egingo ditue Jabekuntza Eskolea osotuten daberen Arratiako andra taldeak, talde feministak, udalak eta Arratiako Udalen Mankomunitateak.



Virginia Imaz Arantzazun.

## BIDEOKLIPA

## Eskean Kristö taldeak "Ardigaldua" bideoklipa aurkeztu dau

## Erredakzioa

Eskean Kristö taldearen "Ardigaldua" kantaren bideoklipa Youtube ben dago. Arratian grabautu, leku ezagun asko agertzen dira bertan: Lemoako Karabie Gaztetxea, Igorreko kiroldegia, Dimako taberna eta abar. Ibon Izaren zuzendaritzapean, aktoreak be arratiarrak dira gehienak; Izaskun Urbaneta, Ines Arenas eta Ismael Pereira igorretarrak, barbarako. Talde teknikoa be bertokoa da. Zuzendaria, Ibon Iza Dimakoa; zuzendari-laguntzailea Joseba Rodriguez Igorrekoa; argazki-zuzendaria, Imanol Garcia be igorretarra da. Izak azaldutakoaren arabera, "Joseba Rodriguez izan da guztiaren arduradun: aktore, lokalizatzaileak...".

## Eskean Kristö

Pello Artabek (abotsa), Alex Ha-

rilok (gitarra), Aritz Ontalvillak (gitarra), Peio Artetxek (bajua) eta Imanol Arresek (bateria) osotuten dabe Eskean Kristö rock banda arratiarra. Maketa bat eta disko bi kaleratu ditue, *Azote kaldüz* (2014) eta *Ezkurrik onenak* (2016). "Ardigaldua" bigarren disko honetako kantua da.

## BAGILAREN 28A

Sexu Askatasunerako  
Nazinoarteko Eguneko banderea  
Lemoako zebrabide baten

## Erredakzioa

Bagilaren 28an, Sexu Askatasunaren aldeko Nazinoarteko Eguna ospatuten da eta Lemoako Udalak sexualitatea askatasunez bizitzeko eskubidea aldarrikatu gura izan dau tren geralekuko zebrabide ustruko banderearen kolore-

agaz margotuz.

Arratiako Udalen Mankomunitateak (AUM) adierazpen instituzionala onartu dau. Bertan, sexualitatea askatasun osoz biziteak "giza eskubideetan oinarritutako jentartearen sustatzen" dauala dino eta konprometiduten da, bardintasun politikan aska-

tasun sexuala txertatzen eta sexu askatasunaren alde behar egiten daberen alkarteai lagundu eta babesa eskeintzen.



## PROGRAMAK

AUMk jaietan  
arriskuak murrizteko  
zerbitzuak ipini ditu

## Erredakzioa

Arratiako Udalen Mankomunitateak (AUM) eta Galdakao eta Amorebieta-Etxanoko Udalak, udako jaietan, gaubean eta ordu txikietan, autobusak ipiniko ditue, gazteak etxera bueltatu daitezaten kotxea hartu barik. Zerbitzua Arratiako udaletako, Amorebieta-Etxanoko eta Galdakao gazteak dago zuzenduta eta hamar herritako jaietatik herriera modu seguruan bueltetako aukerea emoten dau.

Bagilaren 10ean hasi zan zerbitzua Igorreko jaietan, eta urrietara arte iraungo dau, Galdakao santakurtzetera arte hain zuzen be. Bariku edo zapatu gaubetan eskeinitako zerbitzua, 02:30ean eta 05:00etan, Arantzazun izan ezik. Arantzazun 03:30ean egongo da autobusa.

## Arriskuak gixtiz, gehiago gozatu

Drogen arriskuak murrizteko be kanpaina abiatu dau AUMk. Hori dala-eta, Adizkizinoen Prebentzio Komunitario Zerbitzuak Lemoa eta Igorreko jaietan testing zerbitzua eskeinitako dau. Hau da, Igorren bagilaren 17an, eta Lemoan garagarriaren 29an, 00:00etatik 03:00etara, gura daberen droga aztertu ahal izango dabe, hartu aurretik ze substantzia daukazan eta zein porzentajetan jakiteko. Karpa bat be egongo da informazioa eta prebentiboak emon eta alkoholometroak erabilteko aukerea eskeintzeko. Sensibilizazio standak be egongo dira Bedian bagilaren 24an, Arantzazun bagilaren 30ean eta Diman garagarriaren 1ean.

Eraso sexistak prebeniduteko, AUMko Bardintasun Zerbitzuak Beldur Barik gida eta pegatinak bananduko ditu Arratiako herrietako jaietan. Arantzazun, hilaren 30ean, barikua, plazan egongo da Beldur Barik gunea 19:00etatik 22:00etara, eta Bediako jaietan, 24an, zapatuan, 17:30etik 20:30era, Emaginek dinamizautu. Urri lehenengoaren 2an, Lemoako San Antolineraino igoko da eraso sexistak prebeniduteko kanpaina.

IBORREKO SAN ANTONIOTIA	BEGIARDO SAN ZURENA	ABARTEKO SAN PEDROA	SIMARRI SAN PEDROA
00:00etatik 03:00etara	00:00etatik 03:00etara	00:00etatik 03:00etara	00:00etatik 03:00etara
00:00etatik 03:00etara	00:00etatik 03:00etara	00:00etatik 03:00etara	00:00etatik 03:00etara
00:00etatik 03:00etara	00:00etatik 03:00etara	00:00etatik 03:00etara	00:00etatik 03:00etara
00:00etatik 03:00etara	00:00etatik 03:00etara	00:00etatik 03:00etara	00:00etatik 03:00etara
00:00etatik 03:00etara	00:00etatik 03:00etara	00:00etatik 03:00etara	00:00etatik 03:00etara
00:00etatik 03:00etara	00:00etatik 03:00etara	00:00etatik 03:00etara	00:00etatik 03:00etara
00:00etatik 03:00etara	00:00etatik 03:00etara	00:00etatik 03:00etara	00:00etatik 03:00etara
00:00etatik 03:00etara	00:00etatik 03:00etara	00:00etatik 03:00etara	00:00etatik 03:00etara
00:00etatik 03:00etara	00:00etatik 03:00etara	00:00etatik 03:00etara	00:00etatik 03:00etara

## IKASTAROA

Tradizinozko jantzea  
garaikide egiteko  
ikastaroa Areatzan

## Erredakzioa


Aiko taldeak, EHU-UPVren udako ikastaroen barruan, "Tradegin 2017, tradiziozko dantza garaikide egin" ikastaroa antolatu dau Areatzan. Ikastaroaren izena "Geurea ote?" da. Ikastaroa bagilaren 30etik garagarriaren 2ra izango da.

Sabin Bikandi Aikokoaren arabera, Euskal Herrian, euskereagaz batera, jantzea bertokotasunaren eta lurraldetasunaren ikur indartsuenetarikoa dala esan daiteke eta zeozerreri euskal itxurea emoteko musika eta jantzea erabilten dogu. Esate baterako, ekitaldi ofizialetan txistu-tanbolinaren musikeagaz aureskua jantzen da edo film baten txalaparta doinua erabili. Harago joanda, "euskal diasporaren kasuan, sarritan, jantzea hizkuntza baino inportanteagoa da euskal nortasuna adierazoteko". Baina inguruetan be antzeko musika tresnak, musika eta jantzak erabilten dira. Hortik abiatuta, Aiko taldeak Tradegin 2017 ikastaroan, euskal jantzak geureak ete diran gainera hausnarketea egiteko aukerea eskeinitako dau.

Ikastaroak lau helburu ditu. Euskal Herriko ondare koreografikoa testuinguru zabalago batetik aztertu eta ikusteko lekukotza desbardinak biltzea; euskal kulturaren geureganatze prozedurak hobeto ulertzea; jantzan egiteko eta jantzan ikasteko baliabideak ugaritu eta aberastea eta kultura desbardinatuko jantziak alkar ezagutu eta harremanak sortzeko gune egoki bat sortzea.

## Flamenkoa, boleroa eta Arratiako jotea

Hiru saio izango ditu ikastaroak eta bertan, Aikoko irakasleak batera, Katalunia, Asturias, Andaluzia eta Murtziako jantziak eta koreografoak egongo dira. Tartean, Reyes Leon, Sevillako "La castañuela" jantza eskolako zuzendaria edo Pedro Jose Leandro, Murtziako bolero eskolako presidentea.



Aiko taldeko musikariak.



## LIBURUA

# Kepa Perez Urrazak 30 urtetan zehar egin dituan errimak argitaratu ditu

### Erredakzioa

*Abuztuaren azken domekaz goizaldeko atakea, heriotz eta lurpea, lehen pozarren zegon sendia orain saminez betea. (bis) Zure oinazez gozatu du(te) negarra horren trukea, giza duintasun kaltea, nork bortxatu du zure gogoa? nork zure borondatea? zure delitu bakarra, Laura emakume izatea. (bis)*

Laura Orueri egindako bertso hau aukeratu dau Kepa Perez Urrazak, bere *Norbere inguru-neaz kantu errimatua* liburuaren azalerako. Hogeta hamar urtetan zehar sortu dituan koplak eta bertsoak batzean dira bertan. Zornotzako Erroteta argitaletxeak kaleratu dau liburu eta ale batzuk egongo dira salgai Zeberioko plazako Herriko Tabernan. Ehun aleko edizioa da, zeberioztarrak lagun eta familiakoen artean banandu gura ditu-eta.

**Memoria kolektibo errimatua**  
Inguru zentzu zabalean ulertzen

dau Kepa Urrazak: norbera, norbere familia, Zeberio, Euskal Herria eta mundua; danak daukielako "eragina guregan". Irakaskuntza, Euskara eta bertsogintza, Gai sozialak, Gai politikoak, Hauteskundeak, Zeberioko gertaerak, Umoretsuak, Senideei jarritakoak, Zeberio eta heriotzak eta Besterik izeneko atletan, Urrazak, atzen 30 urteetako gure memoria kolektiboan geratu diran gaiak ipini ditu bertsoetan. Ondoren, lau eranskin daukaz liburuak: Hiztegitxoak, Doinu ezagunak, Bertso-koplen kronologia eta Bertso-koplen sailkapena.



**Kepa Perez Urraza.**

## DUNBA

# Bertsotan

### Arratia Institutua

Maddi Zabalo eta Maria Atutxa, Arratia BH1ko DBH 3. mailako ikasleak, Bizkaiko Bertso Idatzien Sariketan sari-dun izan dira. Hona, ikasturte amaierara dala-eta, idatzitako bertsoa. Zorionak!

*Egunak hasiak dira hartzen udaren itxura guztiz galdu egin dogu asperduragaz lotura segundoak be neurtzean etengabeko ardura baina itolarri hori*

*hiru hilez amaitu da sartu gara barre eta poztasunaren mundura egun luzeen usaina etorri jaku burura eta hemetik aurrera guk geuk jartzen dogu muga zer abenturaren ama izango ete da uda?*

Doinua: Habanera. Xabier Lete.



**Maddi Zabalo eta Maria Atutxa.**

## LEHIAKETEAK

# Zeberioko Jaietako Kartel Lehiaketea

### Erredakzioa

Zeberioko Jai Batzordeak eta Udalak 2017ko sandoniak eta umeen ekintzak iragartzeko Kartel Lehiaketa bi antolatu dabez. Bagilaren 26ra arte aurkeztu daitezke kartelak udaletxean.

Sandoniak iragartzeko kartel Lehiaketea "Berdintasunerantz bideratuz" programearen barruan dago

eta andren eta gizonen artean bazterkeria alboratzen eta bardin-tasuna bultzatzen dituan egoerak adieraz behar ditu. Egile bakotzak gehienez lan bi aurkeztu leikez. Kartelaren testua honako hau izango da: "Zeberioko Sandoniak 2017. Abuztuaren 26tik irailaren 4ra".

Sari bi egongo dira; irabazleak 70 euro eroango ditu eta bigarrenak 30.

### Umeen ekintzak iragarteko kartela

Umeen ekintzak iragarteko beste kartel lehiaketa bat antolatu dabe Jai Batzordeak eta Udalak. Hamalau urte artekoak hartu daikie parte.

Kartela A3 tamainakoa, bertikalean izango da eta hutsune bat itxi behar da umeen ekintzak ipinteko. Parte hartzaileak opari bana jasoko dabe.

## LEHIAKETEAK

# Areatzako Jaietako Kartel Lehiaketea

### Erredakzioa

Areatzako Jai Batzordeak Jaietako Kartel Lehiaketea antolatu dau. Proiektuak garagarilaren 14ra arte aurkeztu daitezke. Kartel irabazleak

iragarriko dauz Areatzako jaiak eta jai egitarauaren liburuxkan be argitaratuko da. Saria 150 eurokoa da. Kartelak 60/40 cm formatuan aurkeztu behar dira. Edozein teknika erabili daiteke baina derrigorrez agertu be-

har da hurrengo testua: Areatzako jaiak 2017 Abuztuaren 23tik 30era. Kartelak formatu digitalean eta A4 papelean aurkeztuko dira.

Ebatzia hilaren 17an emongo dau jakitera Jai Batzordeak.

## JAIK

# Herri guztietan biztuko dabez San Juan suak

### Erredakzioa

Arratiako leku askotan biztuko dabez San Juan suak San Juan bezperan. Bedia eta Ubiden plazan, herriko jaietako egitarauen barruan dagoan ekintza bat da, baina Arantzazun, Areatzan, Artean, Diman, Igorren, Lemoan eta Zeanurin be biztuko dabez suak "artoak eta gariak gorde eta subeak eta zapoak" erreteko.

Arantzazun, 19:00etan hasiko dira trikitilariak iluntzea girotzen, eta 20:30ean sardina jana egingo dabe. Sua, 22:30ean biztuko dabe. Areatzan, 21:00etan batuko dira billaroztarrak Zubizaran sardinak eta urdaia jateko, eta ondoren sua biztuko dabe. 23:00etan, Zo-Zongó taldearen *Psycho-Clown* ikuskizuna egongo da.

Artean, goizean traktore bat ibiliko da herritik egur bila. 19:00etan, plazan antzerkia egongo da, 20:30ean, sardinak eta okelea afaltzeko eta 21:30ean biztuko dabe sua Santamañen. Dimoztarrak 20:30ean batuko dira sugarren inguran; Lemoako Tallerretan, barriz, 19:00etan.

Zeanuriko Altzuagan, Igorreko San Juanen edo Dimako Oban be sanjuanak ospatuko dabez. Zeanuriko Undurragan eta Lemoako Elorriagan, barriz, sanpedroak.



### Altzuaga (Zeanuri) Bagilak 23, barikua

15:00etan, txupinazoa.

21:00etan, sardinak, txarrikia, txokolatea, trikitixea eta San Juan sua.

### Bagilak 24, zapatua

12:30ean, mezea eta barauskarria. 21:00etan, auzo bazkaria. Afalostean musikea Diversion taldeagaz.

### Bagilak 25, domekea

12:00etan, mezea. Ondoren, barauskarria, txistula-

riak eta jantzariak eta zozketea. 18:00etan, umeentzako jolasak eta bola jokoak.

### San Juan (Igorre) Bagilak 23, barikua

20:00etan, txupinazoa. 20:30ean, sardinak eta trikitixea. 22:00etan, San Juan sua. Ardoa Barrura fanfarria eta su artifizialak.

### Bagilak 24, zapatua

12:30ean, mezea. Ondoren, trikitixea eta Igel Txapelketea.



## AGENDEA

## BAGILAK 15

## AREATZA

Garagarrilaren 14ra arte, Jaietako Kartel Lehiaketeta. Kartelak udaletxean aurkeztu.

## IGORRE

Igorreko jaiak hilaren 18ra arte. Ikusi egitaraua BEGITUren 275. zenbakiko 5. orrialdean.

## LEMOA

11:30ean, Kirlan-ek eta Udalak antolatuta, Master Class Mind-Body kiroldegian.

Hilaren 23ra arte, jaietako kirol txapelketetan izena emoteko epea zabalik. Kiroldegian.

## ZEBERIO

Bagilaren 26ra arte, Jaietako Kartel Lehiaketa eta umeen ekintzak iragarteko Kartel Lehiaketarako kartelak aurkeztu daitezke udaletxean.

Bagilaren 30era arte, oinarriko informatika ikastaroetan izena emoteko epea. Udaletxean.

## BAGILAK 16

## AREATZA

10:00etatik 15:00etara, Areatzako udalekuan izena emoteko azken eguna udaletxean. Udalekuak hilaren 26tik garagarrilaren 7ra izango dira. Aste bat 45 euro, aste bi 90 euro.

Eskolako jaiak. 15:15etik 17:15era, puzgarriak, tailerrak eta jolasak; 17:15etik 18:00etara, merindea; 18:00etatik 19:00etara, bitsaren jaiak.

Bloomsday jaiak The Quiet Corner tabernan.

## ARTEA

19:00etan, herri batzarra. Herri bideen inbentarioaren metodologiaren aurkezpena. Ludotekan.

## DIMA

18:30etik 20:30era, "Eurt! Euskerara" erakusketea frontoi bikian.

## LEMOA

11:00etatik 14:00etara, jubiladuen biajean izena emoteko azken eguna. Udaletxean. Biajea Gran Canariara izango da urri lehenengoaren 29tik urri bigarrenaren 8ra arte.

## BAGILAK 17

## ARRATIA

Errogatiba. Oinez joateko 06:00retan, Dimako plazan eta Igorreko San Antonio ermitan; 07:30ean, Zeanuriko plazan.

## ARANTZAZU

Arginax Mendi Taldeak antolatuta astegoiaren pasa Valle de Pas-era (Kantabria).

## AREATZA

20:00etan, Rockimpas The Quiet Corner-en.

## ZEBERIO

07:00retan, Austarri Mendi Taldeak antolatuta, astegoiaren pasa Pirinioetan. Auturia (1921 m.)-Anayet (2574 m.).

## BAGILAK 18

## AREATZA

08:00retan, eleiza parean. Urtekera Lamino Mendi Taldeak antolatuta. Pagomakurre-Arraba-Neberaba-Arranbaltza-Aldamin-Pagomakurre.

## BEDIA

10:00etatik 14:00etara, Merkataritza, Artisautza eta Elikadura Azokea; 12:30ean, Arratia Kantuz; 14:00etan, jubiladuen bazkaria Arbasok, Gorbeialdeak eta Udalak antolatuta.

## BAGILAK 21

## ARTEA

09:00etan, Mikel Deuna Jubiladuen alkarteak

antolatuta Santanderrera biajea.

## IGORRE

Jubiladuak Soances-era biajea.

18:00etan, Bizi proiektuaren emoitak Pleno Aretoan.

## BAGILAK 22

## ARTEA

Arteko eskoleak eta guraso alkarteak antolatuta, eskolako Uda Jaia: puzgarriak, bits jaiak...

## BEDIA

Liburutegi eta ludoteka zerbitzuak zarratzen dira. Liburutegia urri lehenengoaren 4ra arte egongo da zarratuta eta ludoteketa garagarrilaren 17ra arte.

Bediako jaiak. Ikusi egitaraua 5. orrialdean.

## IGORRE

17:00etan, Zirko ikastaroko ikasleen eskutik, zirko ikuskizuna, malabareak eta figura akrobatikoak, Lasarte Aretoan.

## LEMOA

18:00etan, kurso amaierako festa. 3Txulo kale ikuskizuna. Kanta eta jantza eskolako patioan. Ludoteketa zarratuta egongo da.



## Basker dokumentala Artean

Argibel Euba antropologoa eta *Basker* dokumentalaren gaineko ikerketearen egilea Artean egongo da bagilaren 17an, 12:00etan, Herriko Bentan. Dokumentala ikusteko eta ikertzaileagaz berba egiteko aukerea egongo da.

SVT Suediako Telebistak 1960ko hamarkadan Euskal Herriko hainbat lekutan grabatukoagaz egindako dokumental etnografikoa da *Basker*. Gr-enholm eta Olson kazetariak *Basker* eta *Bonde i Baskerland* dokumentalak egin ebezan orduko euskal kulturaren inguruan, batez be baseri ingurukoak, eta bertan gaur egun galduta dagozan hainbat ohitura ikusi daitezke.

## IRAGARKI LABURRAK

## SALDU

## ALOKATZEN DA

100 m<sup>2</sup> dituan lonjea alokatzen da Igorreko erdigunean. Bulego, txoko... edozertarako sano aproposa. Baldintza oso erakarriak. Deitu 653 745 838 telefonora.

## DANERIK

## LAN ESKEINTZA

Lan eroso eta ondo ordaindutakoa eskeintzen dogu. Telekomunikazio enpresa baten, autonomo edo kolaboratzaileen bila gabiz, ordutegi barik eta komisino handiak pagauta. Deitu 662 568 707 telefonora.

## TIRALARI BILA

Harriti andra proba taldea, taldean parte hartzeako Arratiako andra bila dabil. Eider 639 293 539.

## LAN BILA

Bediako neska euskalduna persona helduak edo laguntza behar dabenak jagoteko prest agertzen da. Furgonetaduna. Telefona 688 647 074.

## ETXEA ALOKAIRUAN

Etxe bat alokairuan Urkuzun. Kamarea, etxebizitza, kortea eta garajea dauka. Berokuntza txapeagaz. 4 gela, hiru sala, bainugela 2 eta terraza 2. Interesdunak deitu 646 305 624 telefonora (Margari).

## GARAJEA BEHAR DOT

Karabanea ixteko garajea behar dot Arratian. 7 metroko luzeera eta 2,60 m.ko altuera. Deitu 675 712 841 telefonora.

**Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat. [begitu@topagunea.com-era](mailto:begitu@topagunea.com-era). Mezuak doban dira.**

## Begitu-lagunen txokoa

## Zenbaki honetako saridunak:

1

**Suzien Mendi Klubak emondakoa erropa prenda bat.**

Nerea Basterra (Arantzazu)



2

**Axpe Goikoak emondako txakolin kutxatxo.**

Nuria Korta (Igorre)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz,

zozketetan sartuko zara.

BEGITUK 14

urte eta


ehundaka

lagun.



## DENPORA-PASA

IMAN OLATU




### EZKERRETIK ESKOIERA

1.- Adorebako. Boroa. 2.- Eskuazpi. Galioa. 3.- Urmeen berbetan "ikusi zaitu". Tik..., erlojuaren hotza. 4.- Uranioa. Uxu. 5.- Errubidioa. Bokala. Euskera zaharrean, txakur. 6.- Lora mota bat. Konsonantea. 7.- Ezezko. Katuaren marra. 8.- Musika nota. Atezu. 9.- Bokala. Otzara.

### GOITIK BEHERA

1.- Inklinazioa. 2.- Aditzari ohikotasun zentzuna emoten deutso. Lasaitasun. 3.- Susmo. Begiak itxita. Sufrea. 4.- Erbioa. Soto, biltegi. Tantaloa. 5.- Berrogeta hamar erromatar. (Atz.) Astatoa. Ameseta. 6.- Giltz. Birritan, antzarraren hotsaren onomatopeia. 7.- Bakarleku.



Topau elektrizidadeagaz loturaren bat daukien zazpi gauzaren izenak.

D	E	B	U	J	I	A	K	O	L
I	A	I	Z	T	N	E	T	O	P
B	R	O	K	O	D	A	K	A	I
U	F	U	S	I	B	L	E	A	N
B	A	R	E	L	A	G	I	K	U
A	K	E	L	A	U	Z	O	A	D
T	E	Z	T	I	L	K	A	R	E
X	I	T	E	N	I	S	P	R	A
O	Z	U	N	D	A	U	L	A	R
M	A	Z	T	O	G	R	A	E	T
I	N	E	S	O	R	A	P	L	U
N	K	R	I	G	O	R	A	B	K
T	U	R	N	I	S	T	O	A	A
O	M	A	O	H	U	J	A	K	S
L	O	L	A	L	U	R	R	A	E

# AKI MI KO

Zorrozkiilo



umean moda  
**SEM**  
0-16  
Agirre Lehendakaria, 31 • 48140 IGORRE  
Tfnua. 94 631 92 96 • seinmoda@hotmail.com

**AKESOLO, S.A.**  
GARRAIKAK, NEUMATIKOAK ETA ZERBITZUAK  
Garbe, 29 Telefonoa: 94 673 60 14 IGORRE-BIZKAIA

**AKEITEGIA**  
**GAV & LORA**  
IGORRE

Igorren  
**ARKITEKTOA**  
Aitzol Aurrekoetxea Pujana  
Lehendakari Agirre 23, behea  
aitzol@coavn.org - 675 705 111

Recreativos Gubi S.L.  
Angel Larrea  
Zornotza Tfnua 649 86 95 36

**KIRRU**  
ILEAPAINDEGIA  
ROSANA eta ROBER  
SABINO ARANA 38  
IGORRE  
TLF. 94 631 92 00

**GARANTXE Autoeskola**  
TEORIA EUSKARAZ  
ZEIB ERDARAZ  
Lehendakari Agirre 31  
Tfnua: 94 673 71 32  
48140 IGORRE (Bizkaia)  
garante@teoria.net

**ZUZENBIDE**  
ASEGURUAK:  
AUTOAK  
ETXEBIZITZAK  
DENDAK  
ISTRIPUAK  
BIZITZA...  
ABOKATUAK:  
ZUZ. ZIBILA  
KONTSUMO ZUZ.  
ADMINISTRATIO ZUZ.  
INGURUGIRO ZUZ.  
AHOLKULARITZA:  
LAN ZUZENBIDEA  
ZERGAK  
KONTABILITATEA  
Tfn. 94 673 71 41 - 94 673 70 55 - 94 612 11 96 - Faxa 94 612 11 96  
Sabino Arana 3, behea - Igorre (Bizkaia)

**BIXER TABERNA**  
Beko kalea, 2 - Telf. 94 631 73 65 - VILLARDO

Jose Luis Corbacho  
**pintura lanak**  
Sabino Arana, 3. 3a  
Igorre 48140 Bizkaia  
94-673-70-87  
609-79-40-54

**Orre**  
FOTOKOPIAK - PAPERDENDA  
L. Agirre, 2.  
48140 Igorre (Bizkaia) Tfnua: 94 673 61 25

Pinturas Aratia  
Javi Morato  
Tel. 628 443 992

**ARRATIA AUTOESKOLA**  
karneta euskaraz zein erdaraz  
Garbe, 10 - 48140 Igorre (Bizkaia)  
Telefona 94 631 36 31 Faxa 94 673 70 80  
e-posta: unozulu@euskalnet.net



# Zuluaga

- Artisan-bitxigintzaren artea -



## Tradizioa eta abangoardia bitxi paregabe batean elkartuta

Tradizio familiarretik goimailako eta joerako bitxien diseinura; klasiko bat dira jadanik Galdakaon eta Amorebietan. Zuluaga bitxigileek 50 urte baino gehiagoko esperientzia dute goimailako bitxien fabrikazioan; izan ere, Euskadin platinoa lantzen duten espezialista gutxi horietako batzuk dira.

Bilbon urte ugari eman ostean, Galdakao eta Amorebietan instalatu ziren, **Ander eta Igotz** bitxigile-maisuen bigarren belaunaldiak

familia-enpresaren agintea harturik. Haien esker, **kalitatezko eta tradiziozko balloak** egungo eta joerako bitxien diseinuarekin uztartzea lortu zen. Ander Zuluagak banan-banan egiten ditu bozetoak, tradizionalki, hau da, eskuz. Prozesu hori % 100ean da artisaua eta horren emaitza dira pieza esklusiboak, kalitate ezin hobekoak eta akabera zehatzekoak.

Zuluaga artisau bitxi-denda neurria eginda dago, hain zuzen ere, sektorearen ezagutzan oinarritzen diren maisu berritzaile eta adituek eginda. Artisan-bitxigintza paregabea izateaz gain, iraunkorra eta irmoa ere bada, edozein ekitaldirako edo eguneroko bizitzarako egokia, berezia eta pertsonalizatua. Laburbilduz, zure izaerara egokitzen diren bitxi esklusiboak dira.

**Zuluaga familiaren ametsetik jaio da EGUZKILORE, usadio euskaldunaren sinboloetako batean oinarritutako diseinu esklusiboko bitxigintza-linea bat.** Sortu zenetik, markak arrakasta handia izan du bere sorkuntza esklusiboekin.

Zuluaga familiak egi bihurtzen ditu bezeroen ametsak eta ilusioak eta bitxi baten forman gauzatzen ditu horiek. Eguzkilore tradizioa eta abangoardia da. Ander Zuluagaren esku trebeak gai dira negozioaren esperientzia eta tradizioa pieza bakoitzean islatzeko, horietako bakoitzean lan zehatza eginez.

**ZULUAGA bitxi-dendak Galdakaon eta Amorebietan daude.** Horrez gain, beste 7 saltoki dituzte Euskadin, berezko hiru dendetan banatuta (Bilbo, Donostia eta Gasteiz), eta beste hainbeste kornu El Corte Inglés zentroetan (Bilbo, Eibar, Iruñea eta Gasteiz).



## Zuluaga

GALDAKAO · Juan Bautista Uriarte, 49 AMOREBIETA · Karmen 2  
BILBAO · Gran Vía 79 | DONOSTIA · Hernani 33 | VITORIA-GASTEIZ · Fueros 20

El Corte Inglés BILBAO | EIBAR | IRUÑEA | VITORIA-GASTEIZ

EGUZKILORE  
eguzkilorejoya.com



EGUZKIboda  
eguzkiboda.com